Nafarroako Gobernua
Landa Garapeneko, Ingurumeneko
eta Toki Administrazioko Departamentua

Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural,
Medio Ambiente y Administración Local

PREBENTZIO PROGRAMA eta NAFARROAKO HONDAKINEN 2017-2027 ALDIKO PLANA KUDEATZEKO PLANA

HASIERAKO BERTSIOA

2016ko abuztuaren 24a

LABURPEN EXEKUTIBOA

(Informazio hutserako dokumentua da,

eta **ez** dago jendaurrean jarria)

Plan de Residuos de Navarra
2017-2027
Nafarroako Hondakinen Plana

AURKIBIDEA

1. SARRERA 1

2. APLIKAZIO ESPARRUA 4

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK 6

4. PREBENTZIO PROGRAMA 2017-2027 8

4.1. HELBURUAK eta NEURRIAK 10

5. KUDEAKETA PLANA (2017-2027) 13

5.1. GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA 13

5.2. BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA 22

5.3. BIRZIKLAPENA ETA BALORIZAZIOA 27

5.4. EZABAKETA AHALIK ETA GEHIEN MURRIZTEA 43

6. KOMUNIKAZIOA 52

7. HONDAKINEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA 53

8. AUKERA BERDINTASUNA 54

9. ENPLEGUA 55

10. PLANAREN HELBURU, NEURRI eta EKINTZEN LABURPENA 59

11. ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN FLUXURAKO AURREIKUSITA DAGOEN AGERTOKIA 60

12. AZPIEGITURETAN AURREIKUSITAKO AGERTOKIA 62

12.1. BILKETA 62

12.2. BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA 62

12.3. BIRZIKLAPENA 63

12.4. EZABAKETA 63

12.5. LABURPEN MAPA 64

13. GOBERNANTZA UDAL ESKUMENEKO HONDAKINETAN 65

13.1. EGUNGO EGOERA NAFARROAN 65

13.2. GOBERNANTZA PROPOSAMENA PLANEAN 69

14. PLANAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA EGITEA 71

15. AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA 73

1. SARRERA

Ingurumena eta natur baliabideak guztion ondasuntzat jotzen dira planeta osoan, zeren ingurumeneko elementu edo faktore bakoitza sistema integratu batean txertaturik baitago. Horrela, atmosfera, klima eta diodibertsitatea jende guztiarentzat dira onuragarriak, eta aldi berean, planeta osoak piratzen ditu berotze globalaren, ozono geruza murriztearen eta espezieak desagertzearen ondorio latzak.

Planeta osoko kontua denez, beharrezkoa da kudeaketa partekatua egitea, **Gobernantza** deritzona. Izan ere, Gobernantzaren bidez, herritarrek, erakundeek, giza mugimenduek nahiz interes taldeek beren interesak egituratu, beren ezberdintasunen artean bitartekari jardun, eta beren eskubideak nahiz betebeharrak erabiltzen dituzte natur baliabideak eskuratu eta erabiltzeari buruz, eta era berean, hondakinei buruz. Izan ere, hondakinak mundu osoan sortzen dira, eta ikuspegi global eta partekatu horrekin berarekin ekin behar zaie.

Era berean, Europako Batzordeak «**ekonomia zirkularrari** buruzko neurri sorta» bat aurkeztu du, barne direla hondakinei buruzko lege proposamenak, bai eta osotasuneko ekintza plan[1] bat ere. Ikuspegia argia eta munta handikoa da, epe luzekoa, birziklapena areagotzeari eta isurpenak murrizteari dagokionez, eta xedea da ekonomia linealaren ordez ekonomia zirkularra antolatzea, hau da, produktuak ekoiztu, kontsumitu eta bota ordez hondakinen osagaiak behin eta berriz ekoizpen prozesuan sartzea, produktu edo lehengai berriak ekoizte aldera.

Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak emaniko azaroaren 19ko **2008/98/CE Zuzentarauarekin** bat, Estatu kideek hondakinak kudeatzeko planak prestatu behar dituzte, betiere hondakinen gaineko politikaren printzipio orokorrekin bat, helburu nagusia lortze aldera, hots, bateragarri egitea garapen ekonomikoa eta ingurumena babestea. Printzipioen artean honakoak dira nabarmentzekoak: prebentzioa, hierarkia, hurbiltasuna eta askitasuna, bai eta ekoizlearen erantzukizuna ere. Gainera, hazkunde ekonomikoaren, eta hondakinak sortzeak ingurumenean eragiten dituen kalteen arteko lotura hauste aldera, Zuzentarauak ere prebentzio programak landu beharra aurreikusi du, eta programen barruan, hondakinei aurrea hartzeko helburu eta berezko neurriak zehaztu behar dira. Prebentzio neurriok argi eta garbi identifikatu beharko dira, eta proposatzen diren helburuak betetzea izan behar dute xede, bai eta prebentzio arloko jarduketak garatu eta hobetzea ere.

Azkenik, esan behar da 2014-2020 aldirako Kohesio Politikak baldintza berria dakarrela inbertsioak finantzatzeko, hots, baldintza jakin batzuk aurrez bete beharra (**"ex ante" baldintza**), aipatu diruekin finantzatuko diren inbertsioen eraginkortasuna ziurtatze aldera. Horrela, hondakin sektorearentzat ex ante ezarritako baldintzetariko bat da hondakinak kudeatzeko planak egin beharra, Hondakinei buruzko Zuzentarau esparruaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta era berean, behar diren neurriak hartu beharra, aipatu Zuzentarauaren 11. artikuluan ezarritako berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa lortzeko, bai eta ex ante baldintzaren betekizuna ziurtatzeko ere. Espainiako Estatuak Ekintza Plan bat proposatu dio Europako Batzordeari, eta hondakinak kudeatzeko plan estatalak eta autonomikoak 2016. urtearen bukaerarako prestatzeko konpromisoa hartu du.

Aipatu Zuzentaraua Espainiako lege antolamendura aldatu duen Hondakin eta Lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko **22/2011 Legearekin** bat, hondakinak kudeatzeko planak onestea dagokie Autonomia Erkidegoei beren esparruan, bai eta hondakinei aurrea hartzeko programak garatzea ere. Gainera, biltzen du hondakinak prebenitzeko programak era independentean onesten edo txertatzen ahalko direla hondakinak kudeatzeko planetan, eta administrazioek behar diren tresnak finkatuko dituztela zer aurrerapauso eman diren

[1] Batzordeak Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte batzordeari, eta Eskualdeen Batzordeari eginiko jakinarazpena: Zirkulua ixtea: EBren ekintza plan bat ekonomia zirkularrarentzat 2015-12-02, **COM (2015) 614 amaiera**.

aldian behin ebaluatzeko, eta era berean, helburu eta adierazle kualitatibo eta kuantitatibo zehatzak finkatzen ahalko dituztela.

2015aren bukaeran, Parisen Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Alderdien Konferentziaren 21. saioa egin zen Klima Aldaketari buruz (COP21). Haren emaitza Parisko Akordioa izan da, klima aldaketaren kontra 2020tik aurrera borrokatzeko esparru globala ezarri duena.

Hona hemen Parisko Akordioaren helbururik garrantzitsuena: "mundu osoko tenperatura igoerari industrializazio aurreko mailekiko 2 ºC-ko igoeratik behera eustea, eta tenperatura igoera industrializazio aurreko mailekiko 1,5 ºC-ko igoerara mugatzeko ahaleginekin jarraitzea".

Lortu diren akordio nagusien artean, honakoak dira nabarmentzekoak: isurketa txikiak izanen dituen eta klimarekiko erresilientea izanen den ekonomiara jotzeko trantsizioa sustatzea; eta isurpenak epe erdira eta luzera murrizteko bide bat lortzea, berotegi-efektuko gas isurketen eta absortzioen artean oreka lortzeko.

Parisko Akordioa arautu duten printzipioak guztiz garrantzitsuak dira hondakinekiko, eta erabat bat datoz Europar Batasunak arlo honetan proposatu duen Ekintza Planarekin, eta era berean, Gobernu honek **Nafarroako Gobernuaren Akordio Programatikoa 2015-2019**ren bidez darabilen ekintzarekin. Izan ere, Ingurumenari dagokion Atalean hauxe proposatu du Ingurumena kudeatzeari dagokionez (1.1 eta 1.2 idatz-zatiak): *prestatu, onetsi eta ezartzea Nafarroako ingurumen estrategia integrala eta zeharkakoa, eta Europar Batasunaren 20/20/20 konpromisoarekin bat egitea (isurpenak % 20 murriztea; energia eraginkortasuna % 20 handiagoa izatea; energia berriztagarrietatik datorren bukaerako energia % 20 izatea).* Horrez gain, proposatzen du *murriztea berotegi-efektuko gasak, bai eta osasunarentzat kaltegarriak diren gas eta partikula oro ere.*

Horren haritik, 2015eko abendutik aurrera, Nafarroa halaber **klima aldaketaren aurkako borrokan diharduten Eskualdeen mundu sarean** dago sartuta. Bada, Sare horrek Memorandum bat (MOU) egina du klima aldaketaren aurkako mundu gidaritzaren arloan, eta helburu du berotegi-efektuko gas isurketak murriztea. Berotegi-efektuko gas isurketak 2050erako murrizteko printzipio zuzentzaileaz gain, berotze globala 2º C-tik behera mugatu beharko da. Horrek esan nahi du MOU horretan ari diren eskualdeek isurpenak murriztu beharko dituztela, 2050ean egoteko 1990eko mailen % 80tik 90era bitarte beherago, eta/edo horrez gain, bi tona metriko baino gutxiago lortu beharko dutela biztanle bakoitzeko urteko isurpenetan, 2050erako.

Munta handiko helmuga hori 2050erako lortuko bada, epe laburrean aurrerapen neurgarriak lortu beharko dira, behar diren murrizketen ibilbidea ezartze aldera. Epe erdiko helburuei dagokienez, behar-beharrezkoa izanen da haien artean 2030erako edo lehenagorako konpromisoak zehaztea.

Berotegi-efektuko gasetan ezarriak dauden helmugak lortze aldera, funtsezkoa izanen dira koordinazioa eta lankidetza bai natur baliabideak babesteko, bai hondakinak murrizteko. Sektore horietan murrizteak lotura du klima aldaketaren aurrean arindu eta egokitzeko jarduerekin, askotariko esparruetan, hala nola karbonoa bahitzeko kudeaketa tekniketan eta azpiegitura naturalaren babesean. Teknologiak, hondakinak murrizteko edo aipatu hondakinak balorizatzeko .

Nafarroako Gobernuaren Akordio Programatikoak (2015-2019) Ingurumenaren 5. atalean bildua du (D idatz-zatia, hondakinak) Plan berri bat egitea, gizarte zibilak eta eragile inplikatuek parte hartzeko prozesu egoki baten ondotik, eta xedea izanen da ahalik eta teknikarik onenak ezartzea frakzio bakoitza tratatzeko; hori guztia ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik, eta ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatuta.

Hori horrela, **Nafarroako Hondakinen 2017-2027 aldiko Plan** hau egin da (aurrerantzean, Plana). Hondakinak prebenitu eta kudeatzeko politikaren oinarrizko tresna izanen da Foru Komunitatean datozen urteotan. Zehazki, barnebildu ditu Nafarroako Foru Komunitatean, 2017-2027 aldian, sortu eta kudeaturiko hondakinendako Prebentzio Programa eta Kudeaketa Plana, eta bat dator arestian aipaturiko Gobernantza eta Ekonomia Zirkular kontzeptuekin.

Nafarroako Hondakinen Plana, gainera, beste lau mailatan egituratua dago (Komunikazioa, hondakin-fluxuen Jarraipena eta Kontrola egitea, Aukera berdintasuna, eta Enplegua), eta lau mailek zeharka ukitzen dituzte Prebentzio Programa eta Kudeaketa Plana, honako eskema honetan zehatz-mehatz adierazia dagoen bezalaxe:



0. Irudia. Hondakin Planaren mailak

2. APLIKAZIO ESPARRUA

LURRALDE ESPARRUA

Plana Nafarroako Foru Komunitate osoan aplikatuko da. Erroldaren behin-behineko datuen arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean 640.339 biztanle bizi dira Foru Komunitatean, hau da, 2015eko urtarrilaren 1ean baino 137 pertsona gutxiago; % 0,02 gutxiago, hain zuzen.

Etxeko hondakinak kudeatzeari dagokionez, Foru Komunitateko udalerriak gaur egun 15 mankomunitatetan eta Udal batean (Baztangoa) elkartuta daude, baina udal batzuek Nafarroatik kanpo dauden entitateekin lankidetzan kudeatzen dituzte etxeko hondakinak (Lapoblacion, Meano, Urdazubi eta Zugarramurdi).

1. irudia: Mankomunitateen mapa

DENBORA ESPARRUA

Bestalde, Planaren denbora esparrua 2017tik 2027ra bitartekoa da, eta 2022an berrikusiko da, 22/2011 Legearen 14. eta 15. kapituluetan ezarritakoarekin bat. Era berean, Plana zuzenean urtebetez gehienez luzatzea ezarriko da, baldin eta Plan berririk ez bada onesten egungoa bukatzea aurreikusia dagoen urterako.

Azkenik, adierazi behar da Plan honen barruan sarturiko hondakinak direla Nafarroako Foru Komunitatearen barruko instalazioetan sortu eta kudeaturiko guztiak, betiere hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen aplikazio esparruan daudenak.

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Plan honetan ezarritako helburu estrategikoek honako oinarri hauek dituzte: hondakinak sortzeari aurrea hartzeko neurriak bultzatzea, Europar Batasunak Ekonomia Zirkularrean oinarrituriko hondakin politikaren orientabideak aintzat hartzea, Klima Aldaketaren aurkako borroka estrategia finkatzea, eta era berean, ikuspegi globala duen kudeaketa partekatua ezartzea, hots, Gobernantza deritzona, betiere hondakinak sortu eta kudeatzeak giza osasunean eta ingurumenean dituen eragin kaltegarriak arinduta.

Hona hemen aipatu helburuak deskribaturik:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
OE.01 **EKONOMIA ZIRKULARRA ETA KLIMA ALDAKETA**	Baliabideen erabilera eraginkorra sustatzea, hondakin gutxiago sortzea, eta saihestu ezin daitezkeen hondakinak baliabidetako erabil daitezela ahalbidetzea, bultzatuz betiere lehiakortasuna nahiz gizarte eta berrikuntzako enplegua sortzea, aldi berean klima-aldaketaren aurkako estrategian lagunduz.
OE.02 **PREBENTZIOA**	Ekoizpen iraunkorra sustatzea, produktuen nahiz zerbitzuen ikerketa eta ekodiseinua bultzatuta, produktuaren bizitza-zikloaren ikuspegitik, eta era berean, kontsumo arduratsua sustatzea, eta hondakinen prebentzioan era aktiboan lankidetzaz parte har dadila bultzatzea.
OE.03 **GOBERNANTZA**	Etxeko hondakinen kudeaketa publikoan oinarrituriko eredua ezartzea; ereduak, gainera, zergen bidez arautuko ditu tratamendu-aukera guztiak nahiz hondakinak sortzeagatik ordaindu beharrekoa; helburuak gainditzen dituzten aukerei hobariak emanen die, eta aukera-berdintasuna kontuan hartuko du.
OE.04 **KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA**	Sarbide zabala, gardena, estandarizatua eta ez-sexista eskaintzea hondakinak sortu eta kudeatzeari buruzko informaziora, bai eta haien ondorioetara ere, eta haiei buruzko ahalik eta prestakuntzarik eta sentsibilizaziorik aurreratuena garatzea (baita kurrikularra ere), gizarte sozialki konprometitua eta aktiboa lortzeko prebentzioarekin eta birziklapenarekin, hondakin gutxiago sortuko duena, hondakinen arriskugarritasuna murriztuko duena, eta hondakinak gero eta gehiago baliabide gisa erabiltzen ahalko dituena.
OE.05 **BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA**	Berrerabilpenerako prestaketan aurrera jotzea (konponketa, zaharberritzea edo birmanufaktura), fluxu jakin batzuk lehenetsita, hala nola erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, ehun-hondakinak, hondakin elektriko eta elektronikoak, altzariak, eta konpondu daitezkeen beste hondakin batzuk, eta bigarren bizitza bat lortzea.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
OE.06 **GAIKAKO BILKETA ETA BIRZIKLAPENA**	Goi kalitateko gaikako bilketarantz aurrera jotzea, ahalik eta hondakin gehien berreskuratu eta birziklatzea eragingo duena, eta hondakinen sortzailearen (herritarrak, enpresak, etab.) erantzunkidetasuna bermatuko duena, eta genero-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko duena, ohiko kudeaketa bideak nahiz hondakinak prozesatzeko zabaltzen ari diren bide berriak erabilita; bereziki, etxeko bio-hondakinentzat eta hondakin industrialentzat. Horretarako, azpiegitura publiko aski beharko dira, kostu apalekoak eta hurbilekoak, etxeko hondakinak (bio-hondakinak, etab.) tratatzeko, eta egungo tratamendu instalazioen eraginkortasuna handitu beharko da.
OE.07 **EZABAKETA**	Zabortegira ahalik eta hondakin gutxien eramatea; bereziki, birziklagarriak, eta tratatu gabeko hondakinik ez eramatea, hau da, zuzeneko isurpenik batere ez.

1. Taula. Helburu estrategikoak

4. PREBENTZIO PROGRAMA 2017-2027

22/2011 Legearen 15. artikuluaren arabera, Administrazio Publikoek hondakinak prebenitzeko programak garatuko dituzte, eta programa haietan:

- *ezarriko dira hondakin gutxiago sortzeko eta prebenitzeko helburuak, eta substantzia arriskutsu edo kutsagarri gutxiago sortzeko helburuak,*
- *deskribatuko dira dauden prebentzio neurriak eta*
- *ebaluatuko da IV. Eranskinean adierazita dauden neurrien edota beste neurri egoki batzuen adibideen erabilgarritasuna.*

Legeak, gainera, biltzen du hondakinak prebenitzeko programak era independentean onesten edo txertatzen ahalko direla hondakinak kudeatzeko planetan, eta administrazioek behar diren tresnak finkatuko dituztela zernolako aurrerapausoak eman diren aldian behin ebaluatzeko, eta era berean, helburu eta adierazle kualitatibo eta kuantitatibo zehatzak finkatzen ahalko dituztela

Nafarroako Gobernuak Plan bat garatzea aukeratu du, eta Kudeaketa Planaz gainera, berariazko Prebentzio Programa bat barnebildu du, eta helburuak eta prebentzio neurriak aurreikusi ditu lehentasunezkotzat jotzen diren hondakin fluxu jakin batzuentzat; horrela, behar bezalako garrantzia eman dio, eta programa honetan garatzen diren helburu eta neurrien ebaluazioa erraztu du.

2. Kapituluan 22/2011 legearekiko korrespondentziak daude zehaztuta, autonomietako prebentzio programen edukiari buruz.

Egungo egoerari dagokion kapituluan bilduta dagoen bezalaxe, hondakin fluxu askotan ez dira betetzen araudiak aurreikusitako helburuak, salbu eta etxeko hondakinei, erabilpenetik kanpo dauden pneumatikoei eta hondakin industrialei dagozkienak. Bestalde, Nafarroan prebentzio arloan egindako jarduketek ez diote plangintza bati erantzun, hainbat entitatek garaturiko ekintza zehatz batzuei baizik.

Horrek eraginda, hondakinen hierarkiaren piramidearen erpina prebentzioaren mailan dago Nafarroan, 2014. urtean; eta alderik handiena, berriz, ezabaketaren mailan:



1. Grafikoa. Hondakinen hierarkiaren piramidea Nafarroan
Iturria: Hondakinen inbentarioa Nafarroan (ikusi 4. Kapitulua: Egungo egoera)

2017-2027 aldiko Planaren Prebentzio Programarekin, piramidea alderantzikatu nahi da, prebentzioa piramidearen alderik handiena izan dadin; horrela murriztuko baita kudeaketara bideratzen den hondakin kopurua, eta batez ere, ezabaketara bideratzen dena:



2.Grafikoa. Hondakinen hierarkiaren piramidea Nafarroan, proposamen berria

Hondakinen prebentzioak ikuspegi berria behar du hondakinei buruz, hondakinak baliabide direla ulertuko duen kultura berri bat, herritarren engaiamendu aktiboa eta gizarte osoaren lana indartuko dituena, hondakinak eta haien ondorioak murrizteko. Kultura berriak, gainera, bestelako ikuspegia izan behar du emaitzen gainean, begirada gizartean, ekonomian eta ingurumenean pausatuta.

Jendearen iruditerian argi dago zertan datzan prebentzio kontzeptua, baina oraindik ere hasiberria da eguneroko jardunari dagokionez. Hondakinak prebenitzera bideratzen diren jarduketei berez datxekie eredugarri izatea, alderdi pedagogiko bat dute, garrantzitsua da hori indartzea, eta horretarako, komunikazioa eta informazioa funtsezkoak dira. Prebentzio Programen[2] arrakasta hein handian dago lotua bai oinarrizko ezagutzaren kalitateari, bai erabakia hartzen dutenen eta alde interesatuen arteko akordioari.

2017-2027 Planak aurreko Planaren lekukoa hartu, eta prebentzioan ezarri du lehentasunezko helburua, eta Planaren parte-hartze prozesuan ikusi den bezalaxe, adostasun zabala dauka. Ildo estrategikoak zehaztu dira, hondakinen prebentzioan funtsezkoak diren elementuetan eragiteko asmoz (kopurua eta arriskugarritasuna murriztea, eta bizitza erabilgarria luzatzea), betiere lege-betebeharrekin eta honako irizpideekin bat:

- Kopurua. Kontuan hartuko da zer hondakin-fluxuk eragiten duten hondakin guztien bolumen esanguratsua.
- Arriskugarritasuna. Osasunerako arriskugarriak diren fluxuetan eraginen da, baita ingurumenean eraginik handiena sortzen duten haietan ere, betiere Nafarroako Foru Komunitatearen ahalen arabera.

[2] Preparing a Waste Prevention Programme. Guidance document. UE. 2012
http://ec.europa.eu/environment/waste/prevention/pdf/Waste%20prevention%20guidelines.pdf

- Gizarte garrantzia. Kontuan hartuko dira gizartean sor daitezkeen ondorio onuragarriak, hala merkatu aukeretan eragina dutelako, nola gizarte eragileen dinamizazioari eta inplikazioari begira egin dezaketen ekarpenagatik.

- Hobekuntza potentzial nabarmena. Hobekuntza nabarmena izan dezaketen ildoetan arreta berezia jarriko da:

ETXEKO HONDAKIN MOTA	MURRIZKETA POTENTZIALA (%)	UNITATEAK
Organikoa	30	kg/bizt/urte
Ontzi hondakinak	25	kg/bizt/urte
Tamaina handikoak / TEEHak	20	kg/bizt/urte
Papera	15	kg/bizt/urte

2. Taula. Hobekuntza potentzial nabarmena
Iturria: ACR+[3]

Foru Komunitateak behar bezalako ezaugarriak ditu prebentzio arloko esperientziak lantzeko, Estatu osoan erreferente izan litezkeenak. Horrela, aurrekoa kontuan hartuta eta Foru Komunitatearen berezitasunak gogoan, honako fluxu hauek lehenetsi dira Hondakin Plana indarrean dagoen arte; fluxuetarako, gainera, prebentzio arloko ildo estrategiko jakin batzuk ezarri dira:

- 1. Ildo estrategikoa. Bio-hondakinak. Elikagaien ekoizpena, kontsumoa eta erabilera iraunkorra

- 2. Ildo estrategikoa. Ontziak. Ontzien arloan prebentzio indartzea

- 3. Ildo estrategikoa. Tamaina handiko hondakinak, Hondakin Elektrikoak eta Elektronikoak, Pneumatikoak eta erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, Nekazaritza eta abeltzaintza hondakinak. Produktuen eta osagaien berrerabilpena indartzea.

- 4. Ildo estrategikoa. Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak. Eraikuntza iraunkorrago bat eta dekonstrukzioa sustatzea.

- 5. Ildo estrategikoa. Beste fluxu batzuk

Programa hau aldatzeko aukera izanen da, Europako Batzordeak hondakinen prebentzioan eta desloturan proposatzen dituen helburuak sartze aldera, Hondakinei buruzko Zuzentarauaren 9. artikuluarekin bat.

4.1. HELBURUAK ETA NEURRIAK

Planaren 6. Kapituluan ezarri bezalaxe, Prebentzio programaren helburu estrategikoa da (OE.02) ekoizpen iraunkorra sustatzea, produktuen nahiz zerbitzuen ikerketa eta ekodiseinua bultzatuta, produktuaren bizitza-zikloaren ikuspegitik, "*sehaskatik sehaskara*", eta era berean, kontsumo arduratsua sustatzea, eta hondakinen prebentzioan era aktiboan lankidetzaz parte har dezaten bultzatzea, betiere honako ardatzak oinarri harturik:

[3] European Campaign for Waste Reduction
http://www.acrplus.org/index.php/en/component/content/article/2-content/273-european-campaign-for-waste-reduction

- Katean diharduten eragile guztien sentsibilizazioa, kontsumo forma arduratsuagoak sustatzeko eta hondakinen prebentzioan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzeko, bai eta beste ekoizpen prozesu batzuetan bigarren mailako lehengai gisa ekoiztutako hondakinak berriro sartzeko ere.

- Berrerabilpenera, konponketara, zaharberritzera eta birmanufakturara bideratzen diren hondakin ildoen ezagutza areagotzea.

- Berrerabilpenera, konponketara, zaharberritzera eta birmanufakturara bideratzen diren hondakinak kontrolatuz sortzen diren hondakinen prebentzioaren jarraipena egitea. Ehunekoak handitzeko helburu bat zehaztea sektore publikoarentzat eta pribatuarentzat.

Adierazitako helburu estrategikoan oinarrituta, honako helburu eta neurri ezarri dira:

Prebentzio Programaren helburu eta neurrien taula:

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUA	2010	2014	BILAKAERA	EGIN BEHARREKO AHALEGINA		NEURRIAK
					2020	2027	
TOTAL	Hondakin gutxiago sortzea eta material eta produktuetako substantzia kaltegarrien edukia murriztea, 2020an % 10 hondakin gutxiago sor daitezen 2010ean sortu zirenen aldean, eta 2020an % 12 gutxiago sor daitezen, urte beraren aldean.	**1.414.853**	**1.324.358**	**-%6**	**-%4**	**-%6**	Inplikatzea eta prestatzea produktuetako balio kateetako eragileak hondakinak prebenitzearen eta kudeaketa-hierarkia betetzearen garrantziaz, aztarna ekologikoa murrizte aldera. Herritarrak informatu, sentsibilizatu eta kontzientziatzea hondakinak prebenitzearen eta kudeaketa-hierarkia betetzearen garrantziaz, kontsumo forma arduratsuagoak sustatzeko, eta hondakinen prebentzioan era aktiboan parte har dezatela lortzeko, 2027an murrizketa helburuak ezartze aldera. Hondakinen prebentzioa pizgarrien bidez sustatuko duten tresnak eta erremintak indartzea, plan eta politika publikoetako funtsezko atal gisa, ingurumenean sortzen diren kalteak ahalik eta gehien murrizte aldera eta enplegu-aukerak garatze aldera Hondakinen prebentzioari buruzko prestakuntzaren eta informazioaren kalitatea hobetzea, eta aldian behin era irisgarrian eta ulergarrian zabaltzea. Azterlana egitea, bio-hondakinetatik lortzen diren ongarri eta medeapenetako substantzia kutsagarriak eta arriskutsuak ahalik eta gehien murrizteko. Bio-hondakinak: Nafarroako Foru Komunitateak parte hartzea Ministerioaren ekimen honetan: “Estrategia: elikagai gehiago, zabor gutxiago”. Ontziak: prebentzioa ahalik eta gehien indartzea Nafarroan Tamaina handikoak, TEEHak, pneumatikoak eta erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak. Produktuek berrerabilpena sendotzea. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak; eraikuntza iraunkorragoa eta dekonstrukzioa sustatzea.
Etxeko eta merkataritzako hondakinak		**280.607**	**262.602**	-%6	-%4	-%6	
Ontziak		*e/e*[4]	*e/e*	-	-	-	
TEEHak		*2.709*	*2.427*	-%10	%0	-%2	
VFU		**18.687**	**26.987**	%44	-%54	-%56	
NFU		**4.433**	**4.200**	-%5	-%5	-%7	
Olio erabiliak		*5.572*	*3.708*	-%33	%0	%0	
Pilak eta metagailuak		*79*	*78*	-%1	-%9	-%11	
Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak		**307.696**	**191.996**	-38	%0	%0	
Material natural hondeatuak		*e/e*	*793.319*	-	-	-	
Araztegiko lohiak		**70.110**	**76.454**	%9	-%19	-%21	
PCB/PCT		*7.476*	*e/e*	-	0	0	
Nekazaritza-abeltzaintzako hondakinak		*e/e*	*310.384*	-	-	-	
Hondakin industrialak		**733.320**	**762.119**	%4	-1%4	-1%6	
Osasun hondakinak		*e/e*	*3.330*	-	-	-	

Oharra: bakarrik kontabilizatu dira letra lodiz adierazitako fluxuak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

3. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera

[4] Ez dago eskura

5. KUDEAKETA PLANA (2017-2027)

Kapitulu honetan 2027rako proposatu den agertokia garatuko dugu; lehenik eta behin, kudeaketa-hierarkiaren arabera egituratua, eta bigarrenik, hondakin-fluxuaren arabera. Halaber, huraxe garatzeko behar den azpiegituren xehetasuna azalduko da.

5.1. GAIKAKO BILKETA ETA BEREIZKETA

5.1.1. ETXEKO eta MERKATARITZAKO HONDAKINAK

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearekin bat, gutxienez honako material hauek bildu behar dira bereizita: papera, metalak, plastikoa eta beira.

Gaur egun, Nafarroan ezarritako bilketa-ereduek papera-kartoia eta beira bereizita biltzea aurreikusia dute, baina ez dute uzten lege-helburuak betetzea, plastikoa eta metala bereizita soilik biltzen baitira ontziak direnean, ontzi arinen edukiontzian.

Jurramendin ezarritako ereduan (B eredua) bakarrik hartzen dira plastikoa eta ontziez bestelako metalak ontzi arinak biltzen diren edukiontzian. Ontzien eta bestelakoen edukiontzia da. Dena dela, eredu horrek ere lege-helburuak betetzea eragozten du, edukiontzian batera biltzen baitira materialak eta gainerakoen frakzioa.

Proposatu da egungo ereduak gaikako bilketara nola egokitu aztertzea eta horixe esperimentatzea, ezarpen posiblearen aurretik.

5.1.1.1. Aurreikusitako bilketa-eredua

Planean, materialen birziklapenerako aurreikusitako munta handiko helburuak betetzea lortze aldera, eta aldi berean, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearekin bat etortze aldera, honakoa proposatu da gaika biltzeko eta gaiak prestaketara bideratzeko, berrerabiltzeari eta birziklatzeari begira; ontzien edukiontzi horia materialen gaikako bilketara egokitzea (plastikoa, metala eta brika), eta aldi berean, **bost frakzio nagusitan** oinarrituriko bilketa-eredu bakarrerantz jotzea, betiere toki erakundeek ezarritako edo ezarriko dituzten bilketa-ereduak errespetatuta (edukiontziak, atez atekoa…). Honatx eredua:

- Papera-kartoia (ontzia + ez-ontzia)
- Beirazko ontziak
- Materialak: plastikoa, metala eta brika (ontzia + ez-ontzia)
- Materia organikoa
- Gainerakoa (sanitarioak, baxera, oinetakoak…)

Trantsizio hori gauzatze aldera, ereduaren egokitasunari buruzko analisia egitea jo da beharrezkoa, eta era berean, esperientzia pilotuak egitea, ereduak dituen onurak frogatzearren, ingurumenean eta/edo ekonomian dituen kostuen aurrean, hala **materialen** frakzioan nola **gainerakoenean**. Mugarri bat proposatu da, 2021. urtea baino lehen eredu bakar hori egokia ote den ala ez erabakitzeko, eta horrekin bat, noranahi zabaltze aldera edo, bestela, egungo egoera mantentze aldera.

Materia organikoaren frakzioan ezarri den helburuaren arabera, Nafarroako biztanle guztiengana zabalduko da, materia organikoaren % 70 biltzeko xedez. Kontuan hartu behar da honako baldintza hauek bete beharko dituela, gai organikoa gaika biltzeko sistema aintzakotzat jotzeko (baliozkotzeko):

- Bio-hondakinak baizik ez dira onartuko, hau da, janari hondarrak, sukaldeko paper inprimatu gabea, eta lorezaintza hondarrak.

- Desegokiak gehienez % 25 izanen dira 2020ra arte, eta % 20, 2027ra arte.

- Toki entitateen ordenantzetan jasoko da bilketa-sistemaren, hondakin onargarrien, desegokietarako ezartzen diren portzentajeen eta abarren deskribapena, bai eta zabalkunderako erabil litezkeen dokumentuetan ere: webguneak, komunikazio kanpainak, eta beste.

Foru Lege berrian, gainera, pizgarriak/penalizazioak ezarriko dira desegokien maila jakin batzuetara iristeagatik edo ez, gai organikoaren frakzioari dagokionez, eta era berean, gai organikoan kopuru jakin batzuk lortzeagatik edo ez (betiere sistema baliozkotua badago, adierazitakoaren arabera).

5.1.1.2. Merkataritzako ontziak

Etxeko eta merkataritzako hondakin-fluxuetako merkataritza-ontzi aunitz kudeatzaile pribatuetara igortzen dira, eta horrek eraginda, ontzi industrial gisa identifikatzen dira, baina hori faltsua da. Planean helburuak eta neurriak bildu dira, ontzi horiek identifikatzeko eta era bereizian kontabilizatzeko.

5.1.1.3. Toki entitateen negozio-ildoak

5. Kapituluan (Egungo egoera) adierazi den bezalaxe, zenbaitetan, toki entitate batzuk hondakin industrialez arduratzen dira, industrialdeen ibilbideak izenekoen bidez, hau da, beren eskumenetik harata jotzen dute. Hondakin industrialen kudeaketari negozio alor ezberdindu gisa ekin behar zaio.

Planak toki entitateen/Mankomunitateen negozio-ildoak mugatzeko helburua proposatu du, beren eskumeneko hondakin bilketari dagokionez, eta ordenantzen jarraipena eta eguneratzea egitea.

5.1.1.4. Obra txikietatik datozen eraikuntza eta eraispeneko hondakinak

Obra txikietatik datozen eraikuntza eta eraispeneko hondakinek etxeko hondakinen kategoria dute, 22/2011 Legean ezarritakoarekin bat; horrenbestez, toki entitateen eskumenekoak dira. Aipatu Legean ezarritakori jarraiki, gainera, toki entitateek hondakin mota horren bilketara egokitu behar dituzte beren ordenantzak. Toki entitateek konponbidea eman behar diote hondakin mota horri, alternatibak bilatuz, hala nola hondakinak biltzeko moldatuz, hondakinak metatzeko eremuak ezarriz, kudeatzaile baimendunengana bidaliz, edo bestelakoen bitartez.

Herri bakartuak eta/edo urrutikoak badira, Hondakinei buruzko Foru Lege berrian zerga neurriak ezarriko dira, balorizazio zentroetatik urrun egoteak eragiten dituen gainkostuak konpentsatzeko, betiere tokian tokiko konponbide bat bilatu bada, eta ordenantzak egokitu badira.

5.1.1.5. Helburuak eta neurriak

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA			EGIN BEHARREKO AHALEGINA		NEURRIAK
	Deskribapena				2020	2022	2027	2020	2027	
Bio-hondakinak	Gaikako Bilketaren Frakzio Organikoa zabaltzea	%9	%24	%15	%75	%100		%51	%76	Produktuen berrerabilpena sendotzea
	Gaikako Bilketaren Frakzio Organikoa derrigorrez gaika biltzea	%7,8	%9,3	%2	%50		%70	%40,7	%60,7	Bio-hondakinen gaikako bilketa erabat zabaltzea, hala etxekoak, nola ostalaritzakoak, eta hirikotzat jo daitezkeen beste bio-hondakin batzuen ekoizle handienak (arrandegiak, harategiak...), Hondakinei buruzko Foru Lege baten bidez, kalitateko gaikako bilketa pizgarrien bidez sustatuko duena, eta isurpenerako pizgarriak kenduko dituena, pizgarriak eta/edo penalizazioak jarrita hondakin desegokietan diren edukien arabera.
Ontziak ez diren metala eta plastikoa	Aurrerapausoak ematea etxeko eta merkataritzako hondakinak materialen arabera gaika biltzeko (ontziak eta ontziak ez direnak); aurrez analisi bat eginen da hura ezartzeak sor ditzakeen eraginez eta beste bilketa alternatiba batzuk ere aztertuko dira.	e/e	e/e	-						Materialen gaikako bilketa areagotzea ontzi arinendako edukiontziaren bidez.
Etxeko hondakin arriskutsuak. Hondakin merkuriodunak. Tamaina handikoak.	Garbigune sarea sendotzea, eskala handiagoko gainerako gaikako bilketen kalitatea hobetze aldera.	< 1	< 1	%19						Bilketa sarea zabaltzea garbigune, denda, atez ate eta abarren bidez. Garbiguneetako bilketa indizeak handitzean balio onargarrietara iritsi arte. Garbiguneetako sarrera eta irteeraren kontrola eta informazioa hobetzea, benetako datuak erabiltzeko.

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA			EGIN BEHARREKO AHALEGINA		NEURRIAK
	Deskribapena				2020	2022	2027	2020	2027	
Tamaina handikoak, TEEHak eta oihalak	Etxez etxeko bilketa zabaltzea	e/e	e/e	-						Bilketa sustatzea, berrerabilpenerako prestaketa eta kalitateko enplegua areagotuta, Foru Komunitatearen lurralde osoan
Obra txikietako hondakinak (Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak)	Bilketa sarea sendotzea	e/e	e/e	-						Toki entitateek hondakin mota hauentzat irtenbideak susta ditzatela bultzatzea.
Ontziak	Ahalik eta ontzi gehien gaika biltzea	e/e	e/e	-						Hondakinen gaikako bilketa hobetu eta handitzea hondakinak sortzen diren esparru guztietan.
Merkataritzako eta industriako hondakinak	Aurrera jotzea merkataritzako ontziak eta industriako ontziak bereizita biltzerantz, eta era bereizian kontabilizatzerantz, toki entitateek hondakinen kudeaketan dituzten eskumenak zedarrituta.	e/e	e/e	-						Gaikako bilketaren garrantzia zabaltzea
Zeharkakoa	Espero bezalako eraginkortasuna lortzea Planean ezarritako gaikako eredu berrietan.	e/e	e/e	-						Gaikako bilketaren garrantzia zabaltzea

4. Taula. Helburuak eta Neurriak. Etxeko eta Merkataritzako Hondakinak gaika biltzea

.

5.1.1.6. Bilketarako azpiegiturak. Garbiguneak eta transferentzia lantegiak

Eskala txikiko eta kudeaketa zaileko etxeko hondakinei dagokienez, beharrezkotzat jo da ahalik eta gehien biltzea, gainerako gaikako bilketen kalitatea hobetzeko eta aurreikusitako helburuen betekizunean laguntzeko; horretarako, garbiguneen sarea sendotuko da.

Garbigune kopuru minimoaren mapa prestatu da, Plan honetako helburuak betetzearren. Banaketa mankomunitateen arabera egin da, bi irizpide erabilita: batetik, garbigune bati esleitu zaion biztanle kopuru maximoa, eta bestetik, garbigune kopuru minimoa biztanleria dentsitatearen arabera.

Biztanleriari dagokionez, garbigune bat esleitu da 25.000 biztanle arteko mankomunitateentzat; bi, 75.000 arteko mankomunitateentzat; hiru, 125.000 biztanle arteko mankomunitateentzat; eta Iruñerako, berriz, 8 garbigune esleitu dira, 360.602ko biztanleria baitu.

Biztanleria dentsitateari dagokionez, bi garbigune esleitu dira km² bakoitzeko 70 biztanlera iristen ez direnentzat, eta garbigune bat, berriz, km² bakoitzeko 100 biztanlera iristen ez direnentzat.

Hona hemen zenbat garbigune behar diren mankomunitate bakoitzean:

Mankomunitatea	GARBIGUNE KOPURUA		
	Egungoak (finkoak eta/edo mugikorrak)	Gutxienez	Berriak
Bortziriak	1	2	1
Baztan			
Malerreka			
Mendialdea	4	2	0
Araxes Garaia	1	2	1
Erribera	2	3	1
Sakana	3	2	0
Iruñea	8	8	0
Irati	1	2	1
Bidausi	0	2	2
Eska-Zaraitzu	0	2	2
Zangoza	0	2	2
Jurramendi	9	2	0
Izarbeibar	3	2	0
Mairaga	2	2	0
Erriberagoiena	2	2	0
GUZTIRA	36	35	10

5. Taula. Garbiguneak mankomunitateen arabera
Iturria: Toki Entitateak

Egungo transferentzia lantegiak eta karga nasak Planaren indarraldirako mantenduko dira, baina egokitu beharko dira hainbat hondakin mota hartzeko, eta aukeran, aurreikusia dago Iruñerrian transferentzia lantegi berri bat eraikitzea, betiere gainerakoaren frakzioa egungo lantegietara eramateari eta han tratatzeari lotua, baldin eta gainerakoaren frakzioa tratatzeko azpiegiturarik ez badago.

AZPIEGITURA MOTA	HERRIA	BADAGO / BERRIA
TRANSFERENTZIA LANTEGIA	Doneztebe	Badago
TRANSFERENTZIA LANTEGIA	Zangoza	Badago
KARGA NASA	Arbizu	Badago
TRANSFERENTZIA LANTEGIA	Tafalla	Badago
KARGA NASA	Azkoien	Badago
KARGA NASA	Lizarra	Badago
TRANSFERENTZIA LANTEGIA	Iruñea	Berria (aukerakoa)

6. Taula. Tarteko biltegiratze-azpiegiturak

5.1.2. TEEHak, eta PILAK eta AKUMULADOREAK

Planak bat egin du hondakin-fluxu horientzat argitaratutako araudi berriarekin, eta bere egin ditu hondakin horiek gaika biltzeko helburuak:

- TEEHak: Otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruz.

- PILAK eta METAGAILUAK: uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretua, otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretua aldatzen duena, pilen eta metagailuen gainean, eta haien hondakinak ingurumenarekin bat kudeatzearen gainean.

Helburu eta neurrien taula: Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen Taula (TEEHak)

TEEHen KATEGORIAK	HELBURUAK Deskribapena	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA 2018	NEURRIAK
2018/08/14 arteko kategoriak:	110/2015 Errege Dekretuak TEEHak bereizita biltzeko ezarri dituen helburuak betetzea	%21	%22	%1	2019/01/012 baino lehen: Tresna elektriko eta elektronikoen % 65 edo TEEHen % 85	TEEHak biltzeko sarea sendotzea
1. Etxetresna elektriko handiak						
2. Etxetresna elektriko txikiak						
3. Informatika eta telekomunikazio tresnak						
4. Kontsumorako tresna elektronikoak eta panel fotovoltaikoak						
5. Argiztapen tresnak						
6. Erreminta elektriko eta elektronikoak						
7. Jostailuak eta kirol eta aisialdi tresnak						
8. Osasun produktuak						
9. Zaintza eta kontrol tresnak						
10. Makina saltzaileak						
Kategoriak 2018/08/15etik aurrera:		%21	%22	%1	2019/01/012 baino lehen: Tresna elektriko eta elektronikoen % 65 edo TEEHen % 85	
1. Tenperatura trukatzeko tresnak						
2. Monitoreak, pantailak eta 100 cm2-tik gorako azalerako pantailak dituzten tresnak						
3. Lanparak						
4. Aparatu handiak						
5. Aparatu txikiak						
6. Informatika eta telekomunikazio tresna txikiak						
7. Panel fotovoltaiko handiak						

7. Taula. Helburuak eta Neurriak. Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak gaika biltzea

Tabla de objetivos y medidas de Pilas y Acumuladores

MOTAK	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA			NEURRIAK
	Deskribapena				2018	2020	2027	
Pila eta metagailu eramangarriak	106/2008 Errege Dekretua betetzea, 710/2015 Errege Dekretuarekin bat. Bilketarako indize minimoak	%38	%44	%6	%45 2015/12/31tik aurrera		%50 2020/12/31tik aurrera	Bilketa guneak ugaritzea (garbiguneak, SIG sareak, kudeatzaile baimenduak, banaketa bideak, ...)
Pila eta metagailuak, automoziokoak		n/d	%4	-		%98 2018/12/31tik aurrera		
Pila eta metagailu industrialak :								
Kadmioa eta/edo beruna daukatenentzat		n/d	n/d	-	%98 2017/12/31tik aurrera			
Kadmioa eta/edo beruna ez daukatenentzat		n/d	n/d	-			%70 2020/12/31tik aurrera	

8. Taula. Helburuak eta Neurriak. Pila eta Metagailuen Hondakinak gaika biltzea

5.1.3. ERAIKUNTZA ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK

Funtsezkoa da eraikuntza eta eraispeneko hondakinak bereizita biltzea, gero balorizatu daitezen; are gehiago, hondakin arriskutsuei dagokienez, gainerakoak kutsa litzaketelako. Planak, zehazki, hondakinak obran bereizita hobekiago biltzea eragin nahi du, eta horretarako, honako helburu eta neurri hauek planteatu ditu:

ERAIKUNTZA ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Eraikuntza eta/edo zaharberritze obretatik datozen hondakinak ongi bereiztea lortzea, ondoren baliabide gisa aprobetxatu daitezen.**
ADIERAZLEA	Fibrozementuan, pladurrean eta hondakin arriskutsuetan bereizita bildu den kopurua (t)
	Europako Hondakin Zerrendako kodeen arabera bereizita bildu den kopurua (t)
NEURRIAK	Eraikuntzako hondakin tipologia guztiak obran hobeki bereiztea, fibrozementuan, pladurrean eta hondakin arriskutsuetan eraginda.
	Eraispen selektiboa sustatzea, bereizketa egokia egin dadin, hondakinak hobeki aprobetxatze aldera.

9. Taula. Helburua, neurriak eta adierazleak (EEH)

5.1.4. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO HONDAKINAK

Planak bilketa bide egonkorra ezarri nahi du hondakin-fluxu honetarako; eta horretarako, honako helburu eta neurri ezarri ditu:

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Bilketa-sistema egonkorrak sustatzea**
NEURRIAK	Nekazaritzako hondakin kimikoak biltzeko sarea sendotzea (pestizidak, fitosanitarioak, zoosanitarioak, etab.) nekazaritza ustiategietan, eta sendagaien hondakinena, azienda ustiategietan.
	Nekazaritzako produktuen eta haien ontzien bilketan aurrera jotzea.
	Nekazaritzan erabiltzen diren plastikoen bilketan aurrera jotzea

10. Taula. Helburua eta neurriak (nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak)

5.1.5. HONDAKIN INDUSTRIALAK

Askotariko irizpideak daude hondakin industrialaren aplikazio esparrua kontzeptu gisa zehazteko; horregatik, Planaren helburua da fluxu hau osatu behar duten jardueren egokitzapena egitea, hots, Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planaren 18. Kapituluan ezarritakoak: hots, “Berezko legedirik gabeko hondakin industrialak”. Helburu hori behar bezalako helburuetan zehaztuko da, Planaren barruan.

Planaren helburua da hondakin industrial balorizagarrien bilketa eta gaikako bereizketa sustatzea, eta hondakin enpresetan ahalik eta hondakin industrial gutxien nahastea. Honako helburu eta neurri ezarri ditu:

	HONDAKIN INDUSTRIALAK
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Gaikako bilketa ahalik eta gehien zabaltzea, eta hondakin industrialak ez nahastea.**
NEURRIAK	Hondakin industrial balorizagarrien bilketa eta gaikako bereizketa sustatzea, eta hondakin enpresetan ahalik eta hondakin industrial gutxien nahastea.

11. Taula. Helburua eta neurria (hondakin industrialak)

5.2. BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA

Honatx ze den “Berrerabilpenerako prestaketa”; egiaztapenean, garbiketan edo konponketan dautzan balorizazio lanak, eta lan horien bidez, hondakin bihurtutako produktuak edota produktuen osagaiak prestatzen dira berrerabil daitezen, aurrez beste inolako eraldakuntzarik egin gabe.

Planean Prestaketaren helburu estrategikoa da berrerabilpenerako prestaketan aurrera jotzea (konponketa, zaharberritzea edo birmanufaktura), fluxu jakin batzuk lehenetsita, hala nola erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, ehun-hondakinak, hondakin elektriko eta elektronikoak, altzariak, eta konpondu daitezkeen beste hondakin batzuk.

5.2.1. ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK

Helburu hau proposatu da, hots, Berriozarko Emausen Trapuketariak zentroa finkatzea, prebentzioan eta berrerabilpenerako prestaketan jarduteko zentroa izan dadin; eta eredu hori Nafarroako beste herri batzuetara zabaltzeko aukera.

Honako helburu eta neurri ezarri ditu:

	ETXEKO eta MERKATARITZAKO HONDAKINAK
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**PEMAR Planean ezarritako helburuak betetzea, eta are gehiago, kasu batzuetan ere gainditzea.**
ADIERAZLEAK	Etxeko zenbat hondakin bideratu diren berrerabilpenerako prestaketara, sortu diren hondakin guztien artean (%)
	Etxeko zenbat hondakin bideratu diren berrerabilpenerako prestaketara, guztira bildutakoaren aldean (%)

12. Taula. Helburuak eta adierazleak (EMH)

Helburu eta neurrien taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	HELBURUA			NEURRIAK
	Deskribapena	2020	2022	2027	
Guztiak	PEMAR Planean ezarritako helburuak betetzea, eta are gehiago, kasu batzuetan ere gainditzea	%50		%75	Berrerabilpenerako prestaketan aurrera jotzea, Nafarroa Estatu osoan erreferentea izan dadin
Metalak		%60			
Plastikoak		%55			
Papera/kartoia		%70			
Beira		%60			
Zura		%55			
Brickak		%55			
Oihalak		%50			
Beste batzuk		%10			
Oihal hondakinak, TEEHak, altzariak eta konpon daitezkeen beste hondakin batzuk		Bildutakoaren 2%			
Voluminosos			Bildutakoaren %12	Bildutakoaren %18	

13. Taula. Helburuak eta Neurriak. Etxeko eta merkataritzako hondakinen berrerabilpenerako prestaketa

5.2.2. TEEHak

Planak bat egin du berrikitan onetsitako araudiarekin, hots, otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretua, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak arautzen dituena, eta bere egin ditu berrerabilpenerako prestaketa arlorako dakartzan helburuak. Honako helburu, neurri eta adierazleak zehaztu dira:

TRESNA ELEKTRIKO eta ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**110/2015 Errege Dekretuak berrerabilpenerako prestaketan eta birziklapenean ezarritako helburuak betetzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat TEEH bideratu den berrerabilpenerako prestaketara, guztira bildutakoaren aldean (%)

14. Taula. Helburua eta adierazlea (TEEHak)

Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen helburuen taula (TEEHak)

TEEHen KATEGORIAK	HELBURUAK	HELBURUA		NEURRIAK
	Deskribapena	2017	2018	
Kategoriak 2018/08/14ra arte:	110/2015 Errege Dekretuak kategoria bakoitzeko berrerabilpenerako prestaketan ezarritako helburuak betetzea, bildutako TEEHen % gisa	%2		Behar adina instalazio berri ezarri eta baimendu daitezela sustatzea, TEEHak berrerabilpenerako prestatzeko
1. Etxetresna elektriko handiak. Beste batzuk (1.4.)				
3. Informatika eta telekomunikazio tresnak				
4. Kontsumorako tresna elektronikoak eta panel fotovoltaikoak. Beste batzuk (4.4)				
5. Argiztapen tresnak. Luminaria profesionalak (5.3.) eta Beste batzuk (5.4.)				
6. Erreminta elektrikoak eta elektronikoak				
7. Jostailuak eta kirol edo aisialdi tresnak				
8. Osasun produktuak				
9. zaintza eta kontrol tresnak				
10. Makina saltzaileak. Gainerakoa (10.2)				
3. Informatika eta telekomunikazio tresna txikiak		%3		
Kategoriak 2018/08/15etik aurrera:				
4. Aparatu handiak			%3	
6. Informatika eta telekomunikazio tresna txikiak			%4	

15. Taula. Helburuak eta Neurriak. Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak berrerabilpenerako prestatzea.

5.2.3. ERABILPENETIK KANPO DAUDEN IBILGAILUAK

Honako helburu eta neurri ezarri dira:

	ERABILPENETIK KANPO DAUDEN IBILGAILUAK
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**PEMAR Planean ezarritako helburua betetzea**
ADIERAZLEAK	Erabilpenetik kanpo dauden zenbat ibilgailu bideratu den berrerabilpenerako prestaketara, guztira jaso diren horrelako ibilgailuen aldean (%)

16. Taula. Helburua eta adierazlea (EKI)

Helburuen taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BIALAKERA	HELBURUA	NEURRIAK
	Deskribapena				2022	
Erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak	PEMAR Planean ezarritako helburua betetzea	%4,6	%4,6	%0	%5	Berrerabilpenerako prestaketan aurrera jotzea

17. Taula. Helburuak eta Neurriak. Erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak berrerabilpenerako prestatzea

5.3. BIRZIKLAPENA ETA BALORIZAZIOA

5.3.1. ETXEKO eta MERKATARITZAKO HONDAKINAK

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak % 50eko helburua ezarri du etxeko hondakinak berrerabilpenerako prestatzeko eta birziklatzeko, 2020rako. PEMAR Planean, gainera, materialen araberako helburuak ezarri dira hondakin mota horretarako, eta Planak are munta handiagoko helburu globala ezarri du 2027rako. Beharrezkoa jo da, beraz, Nafarroan lan mota horietan aurrera jotzea, eta hobetzea ia hondakin-fluxu eta mota guztietarako.

Birziklapenean, Planaren helburu estrategikoa da aurrerantz jotzea goi kalitateko gaikako bilketarantz, ahalik eta hondakin gehien berreskuratu eta birziklatzeko, eta hondakin sortzailearen (herritarrak, enpresak, etab.) erantzunkidetasuna bermatzea, ohiko kudeaketa bideak nahiz prozesatzeko bide berriak erabiliz; bereziki, etxeko bio-hondakinentzat eta hondakin industrialentzat. Horretarako beharrezkoa izanen da behar adina azpiegitura publiko izatea, kostu apalekoak eta hurbilak, etxeko hondakinak tratatzeko (bio-hondakinak, etab.), bai eta egungo tratamendu instalazioen eraginkortasuna areagotzeko ere.

5.3.1.1. Bio-hondakinak

Gai organikoaren gaikako bilketa biztanleen % 100engana zabalduz, eta kontuan hartuz Hondakinei buruz onetsiko den Foru Lege berrian ezarriko den derrigortasuna, eta bilketa helburua % 70 izanik, 2027an askoz ere bio-hondakin gehiago bilduko dira 2014an baino:

MANKOMUNITATEAK	BIO-HONDAKINAK GAIKAKO BILKETA 2014			BIO-HONDAKINAK GAIKAKO BILKETA 2027		
	GUZTIRA BIO-HOND	KUDEAKETA LANTEGIETAN	KUDEAKETA IN SITU	GUZTIRA BIO-HOND	KUDEAKETA LANTEGIETAN	KUDEAKETA IN SITU
BORTZIRIAK	168	0	168	882	219	663
BAZTAN	132	0	132	669	168	501
MALERREKA	102	0	102	470	122	349
ESKA-ZARAITZU	32	0	32	338	303	36
IRATI	90	0	90	499	400	99
IRUÑEA	11.271	10.845	426	49.755	39.470	468
ZANGOZA	24	0	24	974	948	26
BIDAUSI	27	0	27	286	256	30
ARAXES GARAIA	9	0	9	76	66	10
MENDIALDEA	71	0	71	589	511	78
SAKANA	962	298	665	1.895	1.164	731
IZARBEIBAR	60	0	60	1.355	1.289	66
MAIRAGA	33	0	33	2.947	2.911	36
ERRIBERAGOIENA	853	852	1	3.511	3.509	1
ERRIBERA	256	250	6	9.937	9.680	7
JURRAMENDI (Kalkulua)	11.439	9.609	24	7.243	7.217	26
GUZTIRA	**23.724**	**21.854**	**1.870**	**81.427**	**68.232**	**3.128**

18. Taula. Gaikako bilketa, bio-hondakinak 2014 eta 2027. Iturria: Partzuergoa eta Mankomunitateak

Frakzio hori kudeaketa publikoko egungo zentroetan tratatu liteke, hala nola Cárcarko lantegian eta Culebrete lantegian; zentro horietan behar diren aldaketak eginen dira, jaso beharreko hondakin mota eta kopurura egokitzeko. Culebrete lantegiari dagokionez, behin gaika bildutako gai organikoko masa kritiko nahikora iristen denean, aztertuko da digestorea frakzio hori tratatzeko aukera, gainerakoaren frakzioaren ordez.

Aurreikuspenen arabera, bio-hondakin kopuruak 2027rako gora eginen duenez, beharrezkoa jo da, gainera, azpiegitura publiko berriak egitea, betiere kostu apalak eta hurbilak.

4 konpostaje lantegi publiko berri egitea aurreikusi da, honako eskualdeotan:

- Zangoza, Doneztebe eta Arbizu (3.000 t bitarte/urte, lantegi bakoitzeko)
- Iruña (50.000 t bitarte/urte)

Lantegi horiek egungo transferentzia lantegietan ezar litezke, behar den espazioa moldatuz.

Egungo lantegietako eta/edo lantegi berrietako tratamenduaren osagarri, etxeko eta auzoko konpostajea dago, eskala-kudeaketa deritzona ezarriko baita Nafarroako leku jakin batzuetan, non landa-inguruneak era aktiboak parte hartu baitezake helburuek betetze aldera; adibidez, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak erabiliz, eta era berean, transferentzia lantegietan konpostaje lantegi publiko txikiak eraikiz, etab. Jarduera horien bidez beharrak estaltzen badira, aurreikusitako lantegi horietakoren bat alde batera utz liteke.

2.Irudia. Gai organikoa tratatzeko lantegien mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

5.3.1.2. Ontziak eta Materialak

Ontzien edukiontzia materialak biltzeko ere aurreikusita dagoenez, eta edukian hobekuntzak eginen direnez desegokietan, birziklapena handitzea espero da 2027rako.

Carcarko zentroak, ziur aski, 2020 baino lehen birmoldatuko du bere bilketa eredua, hau da, bilketa eredu heze-lehorra izatetik bost frakzioren eredura pasatuko da; horrela, ontzi arinen eta gainerakoaren edukiontzi horia bikoiztuko da, hau da, materialak biltzeko edukiontzi horia, eta gainerakoa biltzeko edukiontzi berdea, arestian egokitasunari buruz azaldu dugun analisi teknikoaren arabera.

Tratamendu azpiegiturei dagokionez, kontuan harturik parte-hartze prozesuaren emaitzak eta gizarte kohesiorako irizpideak, eta kontuan harturik ere, tokiko enplegua mantentzea, Planak aurreikusi du egungo lau lantegiek irautea (Azkoien, Carcar, Gongora eta Tutera), behar diren aldaketak eginda, jaso beharreko hondakin kota eta kopurura egokitze aldera, baldin eta, azkenean, ontzietatik materialetara aldatzen bada.

Karbono-aztarnaren analisiaren arabera finkatuko da mankomunitateetako edukiontzi horiko edukia zer lantegitara eramanen den; garraioaz gain, lantegiak berez duen eraginkortasuna ere ebaluatuko da.

Ontziak sailkatzeko lantegiak

3.Irudia. Ontziak sailkatzeko lantegien mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

5.3.1.3. Gainerakoaren frakzioa

Planak kudeaketa alternatiba bat aurreikusi du sortzen den gainerakoaren frakzio guztia tratatzeko (% 100), ahalik eta gehien birziklatuz, eta materialen eta gai organikoaren materiala balorizatuz, zabortegira eraman baino lehen tratatu daitezen.

Jarduketa hori, gainera, bat dator sektore lausoek 2020rako ezarri duten Bide Orriarekin. Izan ere, sektore lausoen emisio gehienak sortzen dira hondakinak zabortegira eramatearen ondorioz.

Gainerakoaren frakzioak behera eginen du 2027an, egungo egoeraren aldean, bio-hondakinak gaika biltzearen ondorioz; eta, halaber, beste frakzio batzuk gehiago biltzearen ondorioz:

MANKOMUNITATEAK	Gainerakoa frakzioa 2014	Gainerakoa frakzioa 2027
BORTZIRIAK	2.922	1.763
BAZTAN	2.204	1.331
MALERREKA	1.524	922
ESKA-ZARAITZU	1.079	616
IRATI	1.484	856
IRUÑEA	91.769	41.549
ZANGOZA	3.279	1.858
BIDAUSI	913	521
ARAXES GARAIA	227	127
MENDIALDEA	1.748	979
SAKANA	3.928	1.888
IZARBEIBAR	4.298	2.393
MAIRAGA	9.586	5.318
ERRIBERAGOIENA	8.990	3.645
ERRIBERA	27.406	14.073
JURRAMENDI	7.485	5.993
GUZTIRA	**163.179**	**83.834**

19. Taula. Gaikako bilketa, gainerakoaren frakzioa, 2014 eta 2027
Iturria: Partzuergoa eta Mankomunitateak

Culebrete zentroak gainerakoaren frakzioa tratatzen jarraituko du. Horren osagarri, 2017an, aurretratamenduaren erreusak egonkortzeko tratamendu aerobio bat ezarriko du, zabortegian ezabatu aurretik. 2022 baino lehen, behin gai organikoaren gaikako bilketa toki guztietan ezarritakoan, tratamendu biologiko bat ezarriko du, aurretratamendu mekanikoaren aurretik; adibidez, bio-lehorketa bat izan daiteke. Horrela, gainerakoaren frakzioa molde biologikoan eta mekanikoan tratatuko da. Egungo digestorea erabiltzeko aukera aztertuko da Hondakin Solidoen Frakzio Organikoei tratamendu anaerobioa ezartzeko.

Carcarko zentroak, halaber, frakzio hezea tratatuko du, orain arte bezala, edo gainerakoaren frakzioa, egokitasunari buruzko analisi teknikoaren arabera.

Planak ez du aurreikusi azpiegitura publiko berririk egitea gainerakoaren frakzioa aurretratatzeko, frakzio mota hori erdira jaitsuko baita 2014an sortu zenaren aldean, aurreikuspenen arabera. Gainera, pentsatzen da egungo lantegiak gai direla horretarako. Dena dela, lantegi bat molda liteke Iruñerrirako, beste tratamendu lantegi batzuetara garraiatu behar ez izateko.

Planak, gainera, transferentzia lantegi berri bat aurreikusi du Iruñerrian, baldin eta gainerakoaren frakzioa egungo tratamendu lantegietara eramaten bada.

4.Irudia. Gainerakoaren frakzioaren mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

5.3.1.4. Hondakin ez-birziklagarriak, etxeko eta merkataritzako hondakinak tratatzeko lantegietako erreusetatik datozenak

Etxeko hondakinak tratatzeko lantegietako erreusetatik datozen hondakin ez-birziklagarriei dagokienez, Planak helburuak eta neurriak aurreikusi ditu hondakin mota horiek balorizatzeko alternatibetan, eta balorizazio energetikoaz bestelako bideak sustatuko ditu, bai eta materialen araberako balorizazioaz bestelakoak ere

(errepideak eta parkeak egitea, hiri altzariak, etab.).

Parte-hartze prozesuan ekarpen aunitzetan proposatu da horrelako hondakinen balorizazio energetikoa aldatzea, eta haren ordez, balorizazio materialerako beste forma batzuk bilatzea, eta azkenean, zabortegian ezabatzea.

Planak helburu maximo bat ezarri du balorizazio materialerako teknika tradizionalak eta/edo berriak erabiliz; hots, etxeko eta merkataritzako hondakinen % 75. Gainerako % 25, berriz, zabortegian ezabatuko da.

5.3.1.5. Helburuak eta neurriak

ETXEKO eta MERKATARITZAKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Bio-hondakinak. Biltzen den kopurua ahalik eta gehien birziklatzea eta/edo balorizatzea.**
ADIERAZLEAK	Zenbat bio-hondakin birziklatzen diren, bildutako guztiaren aldean (%)
HELBURUA	**Ontziak. Ahalik eta gehien birziklatzea**
ADIERAZLEAK	Etxeko zenbat ontzi atxiki birziklatu diren, guztira bildutakoaren aldean (%)
	Gaikako bilketatik datorren zenbat ontzi bideratu diren birziklapenera eta/edo balorizazio materialera (%)
HELBURUA	**Guztiak. PEMAR Planean ezarritako helburuak betetzea**
ADIERAZLEAK	Etxeko zenbat hondakin bideratu diren berrerabilpenerako prestaketara, sortu diren hondakin guztien aldean (%)
HELBURUA	**Tamaina handikoak. Birziklapen helburuak betetzea, bildutako kopuruaren aldean**
ADIERAZLEAK	Etxeko zenbat hondakin bideratu den birziklapenera, guztira bildutakoaren aldean (%)
HELBURUA	**Gainerakoaren frakzioa tratatzea**
ADIERAZLEAK	Gainerakoaren frakziotik zenbat tratatu den, sortu den gainerako frakzioaren aldean (%)

20. Taula. Helburuak eta adierazleak (EMH)

Helburuen taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA				NEURRIAK
	Deskribapena				2017	2020	2022	2027	
Bio-hondakinak	Bio-hondakinak. Bildutakoa ahalik eta gehien birziklatzea eta/edo balorizatzea	%100	%100	%0		Bildutakoaren %100			Tratamendu ahalmena arian-arian egokitzea gai organikoan bildu beharreko kopuruetara Irteerako produktuarentzat merkatua bilatzea
Etxeko ontzi atxikiak	Ontziak. Ahalik eta gehien birziklatzea	%100	%100	%0		%80		%85	Aukeraketa eta sailkapen lantegien eraginkortasuna hobetzea Datuen estandarizazioan aurrera jotzea
Gaikako bilketatik datozen ontziak		e/e	%94			%90		%95	
Guztiak	Guztiak. Pemar planean ezarritako helburuak lortzea	%29,1	%32	%3		%50		%75	Berrerabilpenerako prestaketan aurrera jotzea, Nafarroa Estatu osoko erreferentea izan dadin
Metalak		e/e	e/e	-		%60			
Plastikoak		e/e	e/e	-		%55			
Papera/kartoia		e/e	e/e	-		%70			
Beira		e/e	e/e	-		%60			
Zura		e/e	e/e	-		%55			
Brickak		e/e	e/e	-		%55			
Oihalak		e/e	e/e	-		%50			
Beste batzuk		e/e	e/e	-		%10			
Tamaina handikoak (altzariak eta tresnak, jostailuak, zura, koltxoiak, etab.)	Tamaina handikoak. Birziklapen helburuak lortzea bildutakoaren aldean	-	%36	-			%50	%65	
Gainerakoaren frakzioa (hondakin nahastuak)	Gainerakoaren frakzioaren tratamendua	%38	%43	%4	%100 2017/12/31 baino lehen				Tratamendu ahalmena bildu beharreko kopurura egokitzea Merkatua bilatzea irteerarako produktuarentzat

21. Taula, Helburu eta neurrien bilakaera. Etxeko eta merkataritzako hondakinen birziklapena eta balorizazioa.
Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua. Egungo egoera)

5.3.2. ONTZIAK

ONTZIAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Ontziak. Ahalik eta gehien birziklatzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat ontzi bideratu diren birziklapenera, merkaturatutako ontzien aldean (%)
HELBURUA	**Balorizazioa**
ADIERAZLEAK	Zenbat ontzi bideratu den balorizazio materialera, merkaturatutako ontzien aldean (%)

22. Taula. Helburua eta adierazleak (ontziak)

Helburuen taula

HONDAKIN FLUXUA	HELBURUAK	HELBURUA		NEURRIAK
	Deskribapena	2020	2027	
Ontziak	Guztia birziklatzea	%70	75	Aukeraketa eta sailkapen lantegien eraginkortasuna hobetzea Datuen estandarizazioan aurrera jotzea
Papera/kartoia		%85	85	
Beira		%75	75	
Metalak (aluminioa-altzairua)		%70-%70	%70-%70	
Plastikoak		%40	%40	
Zura		%60	%60	
Ontziak	Balorizazioa		%80	Balorizazio energetikoaz eta materialen araberako balorizazioaz bestelako balorizazio bideak bilatzea, ontzi lantegietako erreusetarako (errepideak eta parkeak egitea, hiri altzariak, etab.)

23. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera. Ontzien birziklapena eta balorizazioa

5.3.3. TEEHak

TEEHak	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**110/2015 Errege Dekretuak berrerabilpenerako prestaketarako eta birziklapenerako ezarritako helburuak betetzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat TEEH bideratu den berrerabilpenerako prestaketara, bildutako guztiaren aldean (%)
HELBURUA	**110/2015 Errege Dekretuak balorizaziorako ezarritako helburuak betetzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat TEEH bideratu den balorizaziora, bildutako guztiaren aldean (%)

24. Taula. Helburua eta adierazleak (TEEHak)

Helburuen taula: Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak (TEEHak)

TEEHen KATEGORIAK	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA		NEURIAK
	Deskribapena				2017	2018	
2018/08/14 arteko kategoriak:	110/2015 Errege Dekretuak TEEHak kategorien arabera berrerabilpenerako prestatzeko eta birziklatzeko ezarri dituen helburuak betetzea						Behar adina instalazio berri ezarri eta baimendu daitezela sustatzea, TEEHak berrerabilpenerako prestatzeko
1. Etxetresna elektriko handiak		%80	%8	%7	%80		
2. Etxetresna elektriko txikiak		%69	%81	%12	%55		
3. Informatika eta telekomunikazio tresnak		%83	%85	%2	%70		
4. Kontsumorako tresna elektronikoak eta panel fotovoltaikoak		%83	%88	%5	%70		
5. Argiztapen tresnak		%87	%83	%-4	%55		
6. Erreminta elektriko eta elektronikoak		%85	%83	%-2	%55		
7. Jostailuak eta kirol eta aisialdi tresnak		%86	%83	%-3	%55		
8. Osasun produktuak					%55		
9. Zaintza eta kontrol tresnak		%44	%83	%39	%55		
10. Makina saltzaileak		%0	%91	%91	%80		
Argi deskargako lanparaka		%87	%72	%-15	%80 (birziklapena)		
Kategoriak 2018/08/15etik aurrera:							
1. Tenperatura trukatzeko tresnak		e/e	e/e	-		%80	
2. Monitoreak, pantailak eta 100 cm2-tik gorako azalerako pantailak dituzten tresnak		e/e	e/e	-		%70	
3. Lanparak		e/e	e/e	-		%80 (birziklapena)	
4. Aparatu handiak		e/e	e/e	-		%80	
5. Aparatu txikiak		e/e	e/e	-		%55	
6. Informatika eta telekomunikazio tresna txikiak		e/e	e/e	-		%55	
7. Panel fotovoltaiko handiak		e/e	e/e	-		%80	

25. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen birziklapena. Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioa ikusi 4.kapitulua, Egungo egoera)

TEEHen KATEGORIAK	HELBURUAK			2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA		NEURRIAK
	Deskribapena						2017	2018	
2018/08/14 arteko kategoriak:	110/2015 ezarritako betetzea	Errege balorizazio	Dekretuan helburuak						Behar adina instalazio berri ezarri eta baimendu daitezela sustatzea, TEEHak berrerabilpenerako prestatzeko
1. Etxetresna elektriko handiak				%82	%90	%8	%85		
2. Etxetresna elektriko txikiak				%77	%93	%16	%75		
3. Informatika eta telekomunikazio tresnak				%87	%91	%4	%80		
4. Kontsumorako tresna elektronikoak eta panel fotovoltaikoak				%86	%89	%3	%80		
5. Argiztapen tresnak				%93	%87	%-6	%7		
6. Erreminta elektriko eta elektronikoak				%86	%88	%2	%75		
7. Jostailuak eta kirol eta aisialdi tresnak							%75		
8. Osasun produktuak				%87	%88	%1	%75		
9. Zaintza eta kontrol tresnak				%50	%90	%40	%75		
10. Makina saltzaileak				%0	%91	%91	%85		
Kategoriak 2018/08/15etik aurrera:				e/e	e/e	-			
1. Tenperatura trukatzeko tresnak				e/e	e/e	-		%85	
2. Monitoreak, pantailak eta 100 cm2-tik gorako azalerako pantailak dituzten tresnak				e/e	e/e	-		%80	
3. Lanparak				e/e	e/e	-		%80 (birziklapena)	
4. Aparatu handiak				e/e	e/e	-		%85	
5. Aparatu txikiak				e/e	e/e	-		%75	
6. Informatika eta telekomunikazio tresna txikiak				e/e	e/e	-		%75	
7. Panel fotovoltaiko handiak				e/e	e/e	-		%85	

26. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera, Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinen balorizazioa
Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioa ikusi 4.kapitulua, Egungo egoera)

5.3.4. OLIO ERABILIAK

Helburuen taula

HONDAKIN FLUXUA	HELBURUAK Deskribapena	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA 2027
OLIO ERABILIAK	Balorizazioa	%100	100	%0	%100
	Berreskurapena	n/d	84	-	%95
	Birsortzea	%27	%86	%59	%65

27. Taula. Helburuen bilakaera (olio erabiliak)

Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

5.3.5. PILAK eta METAGAILUAK

Helburuen taula

HONDAKIN FLUXUA	HELBURUAK Deskribapena	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA 2022
Pila eta metagailu industrialak:	Birziklatua	d/e	d/e	-	
Nikel-kadmioa daukatenentzat		%75	%78	%3	%75
Berun-azidoa daukatenentzat		%66	%66	%0	%65
gainerakoentzat		%60	%57	%-3	%50

28. Taula. Helburuen bilakaera

Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

5.3.6. ERAIKUNTZA ETA ERIASPENEKO HONDAKINAK

2027ko agertokian, % 70era iritsi behar du Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinak (EEH) balorizatzeko ehunekoak. Helburu hori betetze aldera, birziklapenaren osagarri, Planak aurreikusi du eraikuntzako hondakinak erabiltzea, leku hondatuak eta meatzaritza-ustiategiak lehengoratzeko lanak egiteko[5]. Planak, gainera, aurreikusi du agregakin birziklatua erabiltzeko aukera meategiak betetzeko eta lehengoratzeko, betiere berariaz horretarako garatuko diren zenbait baldintza tekniko eta/edo ekonomiko jarrita. Hondakinei buruzko eginen den Foru Lege berrian horri buruzko neurri fiskalak ere ezarriko dira.

Material Natural Hondeatuei (MNE) dagokienez, balorizazioak % 90 izan behar du, 2027an.

ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	EEHen balorizazioa egitea
ADIERAZLEAK	Zenbat EEH bideratu diren balorizaziora, guztira sortu diren EEHen aldean (%)

[5] 23/2011 Foru Dekretuaren arabera, eraikuntzako eta eraispeneko tratamendu lantegietatik datozen hondakin inerteak lehengoratze, atontze eta betelan obretan erabil daitezke, aipatu Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako betebeharrak betez.

ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**MNEen balorizazioa egitea**
ADIERAZLEAK	Zenbat MNE bideratu diren balorizaziora, guztira sortu diren MNEen aldean (%)

29. Taula. Helburuak eta adierazleak (EEH)

Helburuen taula

HONDAKIN FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA	EGIN BEHARREKO AHALEGINA	NEURRIAK
	Deskribapena				2027	2027	
Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak	Balorizazioan	%13	%28	%15	%70	%42	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzetik datozen materialak gehiago erabil daitezela sustatzea In situ balorizazioa sustatzea, agregakin birziklatuaren aprobetxamenduaren ehunekoa handitzeko Ikusketa lana
Material natural hondeatuak	Balorizazioa	e/e	%19	-	%90	%71	Material natural hondeatuak lur obretan erabiltzea sustatzea (lurrez eta harriz eginiko lubetak, eta/edo zagorrezko betelanak), leku hondatuak lehengoratzeko eta atontze edo betelan obretan

30. Taula. Helburuak eta neurriak, Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinen birziklapena eta balorizazioa
Iturria. Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

5.3.7. NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO HONDAKINAK

NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Bildutako hondakinak ahalik eta gehien birziklatzea edo/eta balorizatzea**
ADIERAZLEAK	Nekazaritza erabilerako plastikoetan eta/edo plastiko biodegradagarrietan zenbat den konpostagarri, merkatuan jarri den nekazaritza erabilerako kopuruaren aldean (%)
NEURRIAK	Kudeaketaren hobekuntzan aurrera jotzea

31. Taula. Helburuak, adierazlea eta neurria (nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak)

5.3.8. HONDAKIN INDUSTRIALAK

2017-2027 Planak hondakin-fluxu hau ahalik eta gehien birziklatzea aurreikusi du, bai eta ahalik eta gehien balorizazio materialera bideratzea ere.

	HONDAKIN INDUSTRIALAK
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Balorizazio bide berriak bilatzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat hondakin plastiko industrial bideratu den balorizazio materialera, sortu diren hondakin plastiko industrial guztien aldean (%)
HELBURUA	**Bildutako hondakinak ahalik eta gehien birziklatzea eta/edo balorizatzea.**

32. Taula. Helburuak eta adierazleak

Helburuen eta neurrien taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	NEURRIAK
	Deskribapena				
Plastiko industrialak	Balorizazio bide berriak bilatzea	%80	%74	%-5	Balorizazio materialerako beste bide batzuk sustatzea balorizazio lantegietako erreusa ez birziklagarrientzat (errepideak eta parkeak egitea, hiri altzariak, portuak, etab.)
Zeharkakoa	Bildutako hondakinak ahalik eta gehien birziklatzea eta/edo balorizatzea	n/d	n/d	-	Hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaileak dokumentazio-sistema estandarizatuetara egokitu daitezela sustatzea (E3L)

33. Taula. Helburuen eta neurrien bilakaera, Hondakin industrialen birziklapena eta balorizazioa
Iturria. Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

5.3.9. OSASUN HONDAKINAK

OSASUN HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Fluxu hau erregularizatzea**
NEURRIAK	Helburuak eguneratzea

34. Taula. Helburua eta neurria (osasun hondakinak)

5.4. EZABAKETA AHALIK ETA GEHIEN MURRIZTEA

Ezabaketa ahalik eta gehien murrizteko planak hondakinen hierarkiaren azken mailari erantzuten dio, eta haren xedea da, beraz, kudeaketa mota hori ahalik eta gehien gutxiagotzea; hori guztia, prebentzioaren, berrerabilpenerako prestaketaren, birziklapenaren edo balorizazioaren mesedetan.

Bestalde, berrerabilpenerako prestaketaren eta birziklapenaren lege helburuak betetze aldera, ezinbestekoa da ezabatzera bideratzen diren hondakinen ehunekoa mugatzea. Izan ere, 2014ko datuen arabera, Nafarroak oraindik ere zabortegira ezabatzera eramaten ditu etxeko hondakinen % 58.

Planaren helburu estrategikoa da zabortegira ahalik eta hondakin gutxien eramatea; bereziki, ez eramatea, ez birziklagarriak, ez eta tratatu gabeko hondakinak ere; hau da, zuzeneko isurpenak zero.

5.4.1. ETXEKO eta MERKATARITZAKO HONDAKINAK

22/2011 Legean hondakinen kudeaketan ezarritako hierarkiarekin bat, Planak ahalik eta hondakin gutxien eraman nahi ditu zabortegira; bereziki, balorizagarriak. Horretarako, Planean neurriak ezarri dira. Azkenik, beharrezkotzat jo da hondakinak isurtzeko kanon bat paratzea, hondakinen arloko neurri fiskalei buruzko Foru Lege batekin bat.

Aurreikuspenen arabera, beheranzko joera izanen du zabortegira ezabatzera bideratuko den kopuruak etxeko eta merkataritzako hondakinetan:

URTEA	Ezabatzera bideratutako etxeko eta merkataritzako hondakinak
2014	151.792
2015	144.970
2016	138.147
2017	131.325
2018	124.502
2019	117.680
2020	110.857
2021	104.035
2022	97.212
2023	90.390
2024	83.567
2025	76.745
2026	69.922
2027	63.100

35. Taula. Ezabatzera bideratutako etxeko eta merkataritzako hondakinak
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)



3.Grafikoa. Etxeko eta merkataritzako hondakinen ezabaketaren bilakaera
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

Helburuak eta Neurriak

ZEHARKAKOA	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Hondakin birziklagarrien zero isurpen**
ADIERAZLEAK	Zenbat hondakin birziklagarri bideratu diren zabortegian ezabatzera, sortu diren hondakin birziklagarrien kopuruaren aldean (%)
NEURRIAK	Hondakin birziklagarriak balorizatzera bideratzea
HELBURUA	**Hondakinak zabortegian onartzeko prozesuak betetzea**
NEURRIAK	Jarraipena eta kontrola egitea

36. Taula. Helburuak, neurriak eta adierazleak (etxeko eta merkataritzako hondakinak) etxeko eta merkataritzako hondakinak

	ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**Zabortegira hondakin biodegradagarri gutxiago eramateko estrategian aurrera jotzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat udal hondakin biodegradagarri bideratu diren zabortegira, 1995ean sortutako guztien aldean (%)
HELBURUA	Tratatu gabeko hondakinik ez eramatea zabortegira; hau da, zuzeneko isurpenak zero
ADIERAZLEAK	Etxeko zenbat hondakin ezabatu diren aurrez tratatu gabe zabortegian , sortu diren etxeko hondakin guztien aldean (%)
HELBURUA	**Zabortegira ahalik eta hondakin gutxien eramatea**
ADIERAZLEAK	Etxeko eta merkataritzako zenbat hondakin ezabatu diren zabortegian, sortu diren guztien aldean (%)

37. Taula. Helburuak eta adierazleak (etxeko eta merkataritzako hondakinak)

Helburuen taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUAK			EGIN BEHARREKO AHALEGINA		NEURRIAK
	Deskribapena				2016	2020	2027	2020	2027	
ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK	Zabortegira hondakin biodegradagarri gutxiago eramateko estrategian aurrera jotzea	%70	%49	%-21	%35		%5		%-44	Hondakin biodegradagarriak gaikako bilketara bideratzea
	Tratatu gabeko hondakinik ez eramatea zabortegira; hau da, zuzeneko isurpenak zero	%71	%65	%-6		%0		%-65		Jarraipena, ikusketa eta kontrola egitea
	Zabortegira ahalik eta hondakin gutxien eramatea	%71	%58	%-13		%35	%25	%-23	%-33	Hondakinak zabortegian ezabatzeko lanen kudeaketa kostuen kalkuluan aurrera jotzea Hondakinak zabortegian ezabatzeko lanen fiskalitatean aurrera jotzea

38. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera, etxeko eta merkataritzako hondakinak ahalik eta gutxien ezabatzea
Iturria. Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

Azpiegiturak

Hondakinak ezabatzeko hondakinei dagokienez, 2017-2027 aldiko Planaren aurreikuspenen arabera, egungo zabortegiak mantenduko dira, honako berezitasun hauek kontuan hartuta, betiere:

- Carcarko eta Culebrete zabortegiak: haien bizitza erabilgarriaren amaieraraino aprobetxatuko dira, haien ahalmen soberakinaren gaineko analisi sakonean oinarrituta, 2020 baino lehen. Aurreikusia dago, gainera, zabortegi horiek handitzeko aukera, baina aurrez aztertu beharko da hori bateragarri ote den ingurumen babesa duten lekuekin; azterketa Planaren indarraldiko lehen urteetan eginen da.

- Gongorako zabortegia: haren ahalmen soberakinak bidea ematen badu ere Planaren jomugaz haratago erabiltzeko, aurreikusia dago errespetatzea Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren artean egina dagoen hitzarmena; beraz, zabortegi hori aipatu hitzarmena amaitu arte egonen da soilik eskura hondakinak ezabatzeko.

2017-2027 aldiko Planak ez ditu aurreikusi hondakinak ezabatzeko azpiegitura berriak, hainbat arrazoi direla medio: ezabatzera bideratutako frakzioaren jaitsiera progresiboa, egungo azpiegituren ahalmen soberakina, eta haiek handitzeko aukera. Hala ere, zabortegi berri bat molda liteke, Iruñerrian, bertan Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago bizi baita, eta horrela, beste zabortegi eremu batzuetara ez da garraiorik egin beharko.

5. Irudia. Etxeko hondakinen zabortegien mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

5.4.2. ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK

Planak eraikuntzako eta eraispeneko hondakin inerte balorizagarrien zero isurpen aurreikusi du eta, era berean, eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-inerteak hondakin ez arriskutsuendako zabortegietan ezabatzea.

Helburuak, adierazleak eta neurriak

ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINAK	
	DESKRIBAPENA
HELBURUA	**EEH ez-inerteen arteko hondakin ez-arriskutsuen ezabaketa zabortegian mugatzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat EEH ez-inerte bideratu diren ezabatzera zabortegira, sortu diren EEH ez-inerte guztien aldean (%)
HELBURUA	**Hondakin inerterik zuzenean ez isurtzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat EEJ inerte bideratu diren ezabatzera zabortegira, sortu diren EEH inerte guztien aldean (%)
HELBURUA	**Zabortegian ezabaketa mugatzea**
ADIERAZLEAK	Zenbat MNE bideratu diren ezabatzera zabortegira, guztira sortu diren MNEen aldean (%)

39. Taula. Helburuak eta adierazleak (EEH)

Helburuen taula

HONDAKIN-FLUXUA	HELBURUAK	2010	2014	BILAKAERA	HELBURUA		EGIN BEHARREKO AHALEGINA	NEURRIAK
	Deskribapena				2016	2020	2020	
Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH)	EEH ez-inerteen hondakin ez-arriskutsuen ezabaketa zabortegian mugatzea	e/e	e/e	-		%30		Balorizaziora bideratzea eraikuntzako hondakinen hondakin ez arriskutsuak eta ez-inerteak
	Hondakin inerteen zuzeneko isurpena	87%	%72	%-15	%0 2016/12/31n			Hondakin inerteen tratamenduan aurrera jotzea
Material natural hondeatuak	Zabortegian ezabatzea mugatzea	e/e	%81	-		%10	%-71	Hondeatze lurren erabileran aurrera jotzea

40. Taula. Helburu eta neurrien bilakaera, eraikuntzako eta eriaspeneko hondakinak ahalik eta gutxien ezabatzea
Iturria. Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

Azpiegiturak

2017-2027 Planak ez du instalazio berririk aurreikusi, hainbat arrazoi direla medio: ezabatzera bideratutako frakzioaren jaitsiera progresiboa, egungo azpiegituren ahalmen soberakina, eta haiek handitzeko aukera.

5.4.3. HONDAKIN INDUSTRIALAK

Egonkortzera jo du hondakin industrialen ezabaketak zabortegian, 2008tik 2014ra urtez urte zabortegian zenbat sartu ziren aztertuta:

INDUSTRIALAK	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017tik aitzina
GONGORA IND	58.428	67.675	46.398	32.169	28.380	26.330	21.921	20.961	20.000	20.000
CARCAR IND	7.681	8.500	4.629	7.465	8.017	7.612	5.714	5.500	5.500	5.500
ERRIBERA IND	56.322	53.424	51.125	41.449	34.256	31.347	30.124	30.000	30.000	30.000
SAKANA IND	9.081	8.095	6.049	10.572	12.420	7.537	8.443	7.000	7.000	7.000
GUZTIRA IND	**131.512**	**137.694**	**108.201**	**91.655**	**83.072**	**72.827**	**66.201**	**63.461**	**62.500**	**62.500**

41. Taula. Hondakin industrialak ezabatzeko joera
Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)



4.Grafikoa. Hondakin industrialen ezabaketaren bilakaera
Iturria: Nafarroako hondakinen inbentarioak (ikusi 4. Kapitulua, Egungo egoera)

Azpiegiturak

Gaur egun, honako azpiegitura hauek daude eskura hondakin industrialak ezabatzeko:

- GONGORA zabortegia (HEA) (Iruñerriko Mankomunitatea)
- ARBIZU zabortegia (HEA) (Sakanako Mankomunitatea). Hondakin industrialak soilik jasotzen ditu. Haren bizitza erabilgarriaren amaiera 2017/12/31rako dago aurreikusia.
- CARCAR zabortegia (HEA) (Jurramendiko Mankomunitatea). Zabortegi hau Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) batean dago kokatua.
- CULEBRETE zabortegia (HEA) (Erriberako Mankomunitatea). Zabortegi hau Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) batetik hurbil dago.
- DIONISIO RUIZ zabortegia (Kudeaketa pribatua)

Hondakin industrialendako zabortegiak

6.Irudia Hondakinen industrialendako zabortegien mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

2017-2027 aldiko Planak instalazio hauek berak aurreikusi ditu hondakin industrialak ezabatzeko, baina berezitasun hauek aintzat hartuta:

- Arbizuko zabortegia: haren bizitza erabilgarria 2017/12/31n amaitzea aurreikusia badago ere, badago zabortegi berri bat proiektuan, eta 2017an egonen da prest, 8 urteko bizitza erabilgarriarekin.

- Carcar eta Culebrete zabortegiak: haien bizitza erabilgarriaren amaieraraino aprobetxatuko dira, haien ahalmen soberakinaren gaineko analisi sakonean oinarrituta, 2020 baino lehen. Aurreikusia dago, gainera, zabortegi horiek handitzeko aukera, baina aurrez aztertu beharko da hori bateragarri ote den ingurumen babesa duten lekuekin; azterketa Planaren indarraldiko lehen urteetan eginen da.

- Gongorako zabortegia: haren ahalmen soberakinak bidea ematen badu ere Planaren jomugaz haratago erabiltzeko, aurreikusia dago errespetatzea Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren artean egina dagoen hitzarmena; beraz, zabortegi hori aipatu hitzarmena amaitu arte egonen da soilik eskura hondakinak ezabatzeko.

6. KOMUNIKAZIOA

22/2011 Legearen V. eranskinean ezarria dagoenarekin bat, hondakinak kudeatzeko plan autonomikoetan sentsibilizazio kanpainak antolatzen ahalko dira oro har jendearentzat edota kontsumitzaile talde jakin batentzat. Legeak, halaber, hondakinak kudeatzeko hierarkia ezarri du; lehen tokian prebentzioa dago (hau da, % 10 hondakin gutxiago sortzea 2020rako), eta ondoren, hondakinak berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestatzea.

Bestalde, PEMAR Planean ezarritakoaren arabera, hobetu beharra dago herritarrek hondakin politiken garrantziaz duten pertzepzioa dela ekonomiari, dela ingurumenari, dela gizarteari begira. Halaber, informazio gehiago eman behar da dela hondakinen kudeaketak eragiten dituen kostuez, dela jardunean ari diren bilketa-zerbitzuez, dela hondakinen tratamenduaz, eta informazio gehiago ere, emaitzez, hori guztia herritarren parte-hartzea areagotze aldera eta hondakin-fluxu orori loturiko “littering” deritzona (zaborrak abandonatzea) murrizteko.

Horrela, Foru Komunitatearentzat eta hondakin kudeaketaz arduratzen diren erakundeentzat erronka da, batetik, hondakinen prebentzioa sustatzea, funtsezko eragile guztiek lagunduta, eta bestetik, gaikako bilketan inplikazioa handitzea, eta horretan, herritarrek nahiz eragileek eginkizun estrategikoa betetzen dute.

Horrela, kapitulu honetan zehatz-mehatz azalduta ageri da zer-nolako neurri egin asmo diren sentsibilizazio, komunikazio, prestakuntza eta informazio arloan, araudiak eta Planak ezarritako helburuei erantzute aldera.

NEURRIAK

KOMUNIKAZIOA	
NEURRIAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
M.C.01.01	Herritarrek pertzepzio hobea izan dezatela hondakinek ekonomian, ingurumenean eta gizartean duten garrantziaz, eta halaber, herritarren inplikazio aktiboa lortzea hondakinen prebentzio eta kudeaketa egokian, hondakin gutxiago sortzeko eta sortzen direnen arriskua murrizte aldera, eta gaikako bilketaren kalitatea eta kopurua hobetze aldera; hori guztia, hondakinen balorizazio hobea eskaintzeko, hondakinak bigarren mailako baliabidetzat jotze aldera.
M.C.01.02	Informazioaren kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea hondakinei eta haien berrerabilpen aukerei buruz, eta era berean, Nafarroan egiten den hondakin kudeaketaz.
M.C.01.03	Funtsezko eragileen trebetasunak hobetu eta haien konpromisoa handitzea; hori dagokie bai prebentzioan ari direnei, bai beste prozesu batzuetan bigarren mailako lehengai gisa hondakinen berrerabilpenean ari direnei, bai eta, azkenik, hondakinen azken kudeaketan dihardutenei ere.

42. Taula. Neurriak (Komunikazioa)

7. HONDAKINEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA

Kapitulu honetan zehatz-mehatz ageri dira jarraipena eta kontrola egiteko ezarri diren neurriak, eta guztiek ere prebentzio programa eta kudeaketa plana ukitzen dituzte zeharkakotasunez.

JARRAIPENA ETA KONTROLA	
NEURRIAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
M.SyC.01	Jarraipena eta kontrola egiteko ekintzen bidez, hondakinak ongi kudeatzen laguntzea
M.SyC.02	Aurrera jotzea hizkuntza elektroniko estandarizatuaren ezarpenean (E3L hizkuntza, 3.0 bertsioa), hondakinen ekoizpen eta kudeaketa eredu estandarizatu gisa

43. Taula. Neurriak (Jarraipena eta kontrola egitea)

8. AUKERA BERDINTASUNA

Kapitulu honetan zehatz-mehatz ageri dira aukera berdintasunerako neurriak, eta guztiek ere prebentzio programa eta kudeaketa plana ukitzen dituzte zeharkakotasunez.

Ez da informaziorik lortu egungo egoeraz Nafarroan, eta informazio gutxi Estatu mailan; horrenbestez, hondakinen kudeaketan aukera berdintasuna beratuko bada, beharrezkoa da honako neurri ezartzea

AUKERA BERDINTASUNA	
NEURRIAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
M.IG.01	Aurrera jotzea genero-berdintasunean, hondakinen arloko komunikazioari dagokionez
M.IG.02	Aurrera jotzea genero-berdintasunean, hondakinen inguruko informazioari dagokionez.
M.IG.03	Aurrera jotzea genero-berdintasunean, gaikako bilketari dagokionez
M.IG.04	Hondakinen kudeaketa aukera berdintasunaren arloan aztertzea

44. Taula. Neurriak (aukera berdintasuna)

9. ENPLEGUA

Informazio partziala eskuratu da hondakinak kudeatu eta tratazeko sektorean enplegua zertan den jakiteko. Izan ere, Jarduera Ekonomikoen Kode Nazionaleko (CNAE 2009) bi jarduerari dagokienez soilik lortu dira datuak Gizarte Segurantzan afiliaturik dagoen jende kopuruaz. Honatx: CNAE 38, hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzeari dagokiona, eta CNAE 39, deskontamizazio jarduerei eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuei dagokiena. Horrenbestez, ikusi da beharrezkoa izanen litzatekeela azterlan xehatua egitea sektorearekin zerikusia duten nafar enpresa guztietan, egoera egiazki zertan den jakiteko eta aztertzeko.

Informazio gutxi lortu denez, kalkulu bat egin da -ondoren azalduta dauden beste faktore batzuk oinarri hartuta- Plana garatzearen ondorioz sor litekeen enpleguari buruz, kontuan harturik azterlan sakona egin beharko dela, Nafarroako hondakinen sektorean zenbat enplegu berde sor daitekeen jakinen bada, enplegua sortzearen mendean dauden faktore ugarien egoera aztertuko duena.

Kalkulu hori egiteko, erreferentzia bibliografikoak eta dauden ratioak erabil daitezke, eta jakin badakigu kalkulua aldakorra izan daitekeela, zer iturri erabiltzen den. Izan ere, ratio horiek kalkulatu dira eta atera dira ziurrenera Nafarroakoaz bestelakoa den lurralde-eremu baten testuinguruan, eta hondakinak kudeatzeko eta helburuak betetzeko plangintza jakin bat duena; gainera, ez dago doitua, zeren ez da jakina nola bilakatuko diren faktore batzuk etorkizunean: biztanleria, hazkunde ekonomikoa, hondakinak sortzearen eta jarduera ekonomikoaren arteko banaketa, hondakinak kudeatzeko politikak, etab.

Enplegu berdea sortzeko aukerak hondakinak kudeatzeko kate guztian daude, baina sektore barneko arlo batzuek enplegu bolumen handiagoa sor dezakete erlatiboki, unitate tratatu bakoitzeko. Hainbat datu eta azterlanen arabera, birziklapen helburuak areagotzen badira, enplegua sortzen da, eta nabarmena da oro har birziklapenak enplegu gehiago sortzen duela hondakin unitate bakoitzeko, hondakinak errausteak edo zabortegira eramateak baino.

Toki Autosufizientziarako Institutuaren (Institute of Local Self-Reliance) azterlan baten arabera, hondakin birziklagarriak sailkatu eta prozesatzeak hamar aldiz enplegu gehiago sortzen ditu zabortegira eramateak edo errausketak baino, hondakin tona bakoitzeko (PNUMA, 2011).

Zentzu berean, Europako Batzordearen 2005eko txosten batek dio birziklapena enplegu-iturri dela: 10.000 tona hondakin birziklatzeko, 250 lanpostu arte behar dira; aldiz, 20 eta 40 artean behar dira, hondakinak errausten badira, edota 10, zabortegira botatzen badira.

Amigos de la Tierra elkarteak beste azterlan bat egin zuen 2010ean Europarako, eta kalkuluen arabera, funtsezko material batzuen % 70 birziklatzeko helburua beteko balitz, hau da, 115 tona gehiago beira, paper, plastiko, metal ferroso eta ez-ferroso, zur, ehun-gai eta hondakin biologikoetan, 32.000 enplegu ere sor litezke zuzenean 27ko EBko birziklapen arloan. Enplegu horiek zeharkako eragina izanen lukete balio katearekin loturiko sektoreetan eta ekonomiaren gainerakoan, zeharkako 160.900 enplegu eta 80.400 enplegu induzitu sortuta. Beraz, guztira, 563.000 enplegu berri sor litezke[6].

[6] Azterlana: "*Empleos verdes para un desarrollo sostenible. El caso español"* Sustainlabour, Biodiversidad Fundazioarekin elkarlanean.

Azken erreferentzia horri erreparatuta, ratio bat lortu da zenbat enplegu sor litekeen kalkulatzeko, betiere etxeko hondakinen birziklapena handitzen bada helburua erdiesteko; hots, 2027an % 75 birziklatzea. Bada, horren arabera, 4,895 enplegu dira 1.000 t hondakin birziklatu bakoitzeko. Balio hori aplikatzen badiogu helburua lortzeko birziklapenean handitu beharko litzatekeen kopuruari (78.200 t, hau da, 162.200 t-tik (2027) 84.000 t kenduta (2014)), guztira 383 lanpostu berri sor litezke.

BIRZIKLAPENAK SOR DEZAKEEN ENPLEGUA			
Etxeko Hondakinen **% 75 birziklatua** Igoera 78.200 t	**Enpleguak**	**Mota**	**Nitxoa**
	22	Zuzenak	Birziklapen sektorea
	109	Zeharkakoak	Balioaren gainerako katea, eta ekonomia, oro har
	55	Induzituak	
	197	Besterik	
	383	**Guztira**	**Osotara**

45. Taula. Birziklapenak sor dezakeen enplegua
Iturria: geuk egina (GAN-NIK), honako azterlan hau abiaburu hartuta:"Empleos verdes para un desarrollo sostenible. El caso español" Sustainlabour, Biodiversidad Fundazioarekin elkarlanean.

Bestalde, honako kalkulu hauek egin dira, kasu bakoitzean eskura dauden kopuruen arabera. Horretarako, "*La generación de empleo en la gestión de la materia orgánica de residuos urbanos en el marco de la generalización de la recogida selectiva*" izenburuko azterlanean ageri diren ratioak hartu dira oinarri, Comisiones Obreras sindikatuko Instituto Sindical de Trabajo, Ambiente y Salud (ISTAS) Institutuak egina gaikako bilketa ezartzeak sor lezakeen enpleguari buruz. Kopuruak 2014ko egoeraren eta 2027ko egoeraren arteko aldeari dagozkio.

BIO-HONDAKINEN KUDEAKETARI LOTURIKO ENPLEGU SORRERA		Kopurua, t	Enplegu koef. (1.000 t)	Enpleguak		
ZUZENA	FORS Gaikako Bilketa	68.285	0,94	64	101	253
	FORS tratamendua – konpostajea	16.190	0,31	5		
	FORS ezartzeko kanpainak	68.285	0,26	18		
	FR tratamendua	11.417	0,565	6		
	Konpost-digestato-bioegonkortua merkaturatzea (garraioa barne)	16.190	0,47	8		
ZEHARKAKOA	Zerbitzu laguntzaileak eta beste		1,5	152		

46. Taula. Bio-hondakinen kudeaketak sor dezakeen enplegua
*Iturria: geuk egina (GAN-NIK), honako azterlan hau abiaburu hartuta: "*La generación de empleo en la gestión de la materia orgánica de residuos urbanos en el marco de la generalización de la recogida selectiva" (ISTAS*)*

Birziklapena handitzearekin batera hondakin gutxiago eramaten dira zabortegira; beraz, giza baliabide gutxiago beharko lirateke, eta enpleguak gal litezke hondakinak kudeatzeko arlo orretan. Kalkulatu ez bada ere, birziklapena handitzeak enplegua galarazi lezake baliabide berrien erauzketan eta haien eraldaketan, baina baliteke birziklapenak sortuko lukeen enpleguarekin berdindua geratzea.

ZABORTEGIRA HONDAKIN GUTXIAGO ERAMATEARI LOTURIKO ENPLEGU GALERA	Kopurua, t	Enplegu koef. (1.000 t)	Enpleguak
Zabortegira eramanen ez diren hondakinak (guztiaren % 25)	89.116	0,07	6

47. Taula. Zabortegira hondakin gutxiago eramateari loturiko enplegu galera
*Iturria: geuk egina (GAN-NIK), honako azterlan hau abiaburu hartuta: "*La generación de empleo en la gestión de la materia orgánica de residuos urbanos en el marco de la generalización de la recogida selectiva" (ISTAS*)*

Kontuan harturik Hondakin Plana 2027 Planean 10 garbigune azpiegitura berri aurreikusita daudela hondakin arriskutsuak eta ezaugarri bereziko ez-arriskutsuak biltzeko, uste da 10 lanpostura bitarte sor litezkeela, betiere garbigunearen (finkoa/mugikorra) ezaugarrien arabera; hau da, lanpostu bana instalazioko.

Beste azterlan bati ere erreparatu zaio, hots, "*Oportunidades de creación de empleo en la mejora de la gestión de RAEE "Victor Mitjans (Fundació per la pervenció de residus i consum) y Marta Carmona y Jordi Costa(Datambient).* Zuzentarauan, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinetarako ezarrita dauden helburuak betetzeari buruzko azterlana da, eta erreferentzia horiek oinarri hartuta, kalkulatu da zenbat giza baliabide sortuko lituzkeen TEEH gehiago prestatzea berrerabilpenerako eta birziklapenerako.

HONDAKINAK BILTZEARI ETA BERRERABILPENERAKO PRESTATZEARI LOTURIKO BESTE ENPLEGU ZUZEN BATZUK	Enpleguak
Garbiguneak (10 gune finko/mugikor berri)	10
Prestaketa TEEHak berrerabiltzeko eta birziklatzeko	100

48. Taula. Hondakinak biltzeari eta berrerabilpenerako prestatzeari loturiko beste enplegu zuzen batzuk
Iturria: geuk egina (GAN-NIK), honako azterlanean oinarrituta: Oportunidades de creación de empleo en la mejora de la gestión de RAEE "Victor Mitjans (Fundació per la pervenció de residus i consum) y Marta Carmona y Jordi Costa (Datambient)

Laburbilduz, kalkulaturiko balio berri horiei erreparatuta, 356 lanpostu berri sortuko lirateke.

ENPLEGU SORRERA BALANTZE OROKORRA	356

49. Taula. Enplegu sorrera, balantze orokorra
Iturria: geuk egina (GAN-NIK), aipaturiko kalkuluak oinarri harturik

Nabarmendu behar da zenbaki horretan ez dagoela sartua zenbat enplegu sor lezakeen gaika bildutako frakzioen bilketa eta tratamendua hobetzeak (papera, beira eta ontzi arinak, tamaina handikoak eta ehun-gaiak).

Hortaz, hainbat iturri abiaburu hartuta, enplegua sortzeari buruzko datuek atzeko emaitzak ematen dituzte (383 edo 356 enplegu).

Hona hierarkiaren arabera sortuko litzatekeen enplegua:

Hierarkia	Zuzeneko enpleguak. Kopurua	Zeharkako enpleguak. Kopurua	GUZTIRA
Prebentzio programa			
Kudeaketa plana			
Gaikako bilketa	64	58	117
Berrerabilpenerako prestaketa	100	78	178
Birziklapena-balorizazioa	19	16	35
Ezabaketa	-6		-6
Neurri horizontalak			
Komunikazioa	18	15	33
GUZTIRA	**187**	**161**	**356**

50. Taula. Enplegu sorrera hierarkiaren arabera
Iturria: geuk egina (GAN-NIK), aipaturiko kalkuluak oinarri harturik

Kapitulu honetan, enplegua sortzeko neurri ageri dira zehatz-mehatz, hots, zeharkakotasunez prebentzio programa eta kudeaketa plana ukitzen dituztenak.

ENPLEGUA SORTZEA	
NEURRIAK	
KODEA	**DESKRIBAPENA**
M.EM.01	Aurrera jotzea hondakinen kudeaketari loturiko enplegu sorreran, aukera berdintasuna aintzat harturik.

51. Taula. Enplegua sortzeko neurria

10. PLANAREN HELBURU, NEURRI eta EKINTZEN LABURPENA

2027 Planak 7 helburu estrategiko barnebildu ditu (06 Kapituluan garatuak), berariazko 49 helburu, 44 jarraipen-adierazle, 77 neurri eta 237 ekintza:

GAIA	HELBURU		JARRAIPEN ADIERAZLEAK	NEURRIAK	EKINTZAK
	ESTRATEGIKOAK	BERARIAZKOAK			
EKONOMIA ZIRKULARRA eta KLIMA ALDAKETA.	1	--	--	--	--
GOBERNANTZA	1	--	--	--	--
PREBENTZIO PROGRAMA	1	1	1	9	62
KUDEAKETA PLANA					
- GAIKAKO BILKETA	0	14	13	19	32
- BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA	1	3	4	3	13
- BIRZIKLAPENA	1	19	18	20	48
- AHALIK ETA GUTXIEN EZABATZEA	1	8	7	9	10
KOMUNIKAZIOA eta SENTSIBILIZAZIOA	1	1	1	11	54
JARRAIPENA eta KONTROLA	0	1	--	2	10
AUKERA BERDINTASUNA	--	1	--	3	5
ENPLEGUA SORTZEA	--	1	--	1	3
GUZTIRA	**7**	**49**	**44**	**77**	**237**

52. Taula. Helburu, adierazle, neurri eta ekintza kopurua

Helburu, neurri, ekintza eta adierazle guztien xehetasuna Planaren 1. Eranskinean dago barnebilduta.

11. ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN FLUXURAKO AURREIKUSITA DAGOEN AGERTOKIA

2tik 8ra bitarteko ataletan ezarrita dauden helburuak betetzen badira, honakoa izanen da hondakinen sorrera eta kudeaketa agertokia 2027an:



53. Taula. 2027ko agertokia. Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

Hona 2027ko agertokiaren eta 2014koaren arteko alderaketa:

2014		
SORRERA = 262.602 t		
GAIKAKO BILKETA 99.424 t (%38)		GAINERAKOAREN FRAKZIOA 163.179 t (%62)
BIO-HONDAKINAK	MATERIALAK (Ontzi Arinak, P/K, beira, etab.)	GAINERAKOAREN FRAKZIOA
25.554 t (% 10)	73.870 t (% 28)	163.179 t (% 62)

2027		
SORRERA = 252.500 t		
GAIKAKO BILKETA 168.700 t (%67)		GAINERAKOAREN FRAKZIOA 83.800 t (%33)
BIO-HONDAKINAK	MATERIALAK (Ontzi Arinak, P/K, BEIRA, ONTZIAZ BESTELAKO PLASTIKOA, ONTZIAZ BESTELAKO METALA)	GAINERAKOAREN FRAKZIOA (edukiontziak eta atez ate)
81.400 t (% 33)	87.300 t (% 35)	83.800 t (% 32)

54. Taula. Agertokien alderaketa: 2014- 2027
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

% 10 hondakin gutxiago sortuko dira, 2010. urtearen aldean, 22/2011 Legean ezarritakoarekin bat.

Gaika bilduko diren etxeko hondakinak % 38tik % 66ra igoko dira, materialen bilketa berriak eraginda, eta era berean, ahalik eta gai organikorik gehiena bilduko delako.

Horren ondorioz, Gainerakoen Frakzioa %62tik % 34ra jaitsiko da, bai eta gai organikoan duen edukia ere.

Oreka hori ikuspuntu ekonomikotik lortzeko, beharrezkoa da konposta gauza gehiagotarako erabiltzea eta eskaria ere handitzea, bai eta prezioa ere (lorezaintzan, baratzezaintzan… erabiltzea). Horrez gain, beharrezkoa ikusten da tresna ekonomikoak sortu eta aplikatzea (isurpenaren egiazko prezioa, isurpen kanona), bai eta lege arlokoak ere (Udal hondakin biodegradagarriak zabortegira, hondakinen hierarkia, etab.). Beraz, beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen da hondakinei buruzko Foru Lege bat sortzea alderdi horiek guztiak arautzeko

12. AZPIEGITURETAN AURREIKUSITAKO AGERTOKIA

12.1. BILKETA

LANTEGI MOTA	LANTEGI KOPURUA	LANTEGIEN IDENTIFIKAZIOA
EGUNGO TRANSFERENTZIA LANTEGIAK (Kudeaketa publikoa)	3	Zangoza Doneztebe Tafalla
TRANSFERENTZIA LANTEGI BERRI POSIBLEA (Kudeaketa publikoa)	**1**	**Iruña**
EGUNGO KARGA NASAK (Kudeaketa Publikoa)	3	Arbizu Lizarra Azkoien
EGUNGO GARBIGUNEAK (FINKOAK eta/edo MUGIKORRAK) (Kudeaketa publikoa)	36	Bortziriak-Baztan-Malerreka Mendialdea Araxes Garaia Erribera Sakana Iruña Irati Zangoza Jurramendi Izarbeibar Mairaga Erriberagoiena

55. Taula. Bilketa lantegiak
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

12.2. BERRERABILPENERAKO PRESTAKETA

HONDAKIN MOTA	LANTEGI MOTA	LANTEGI KOPURUA	LANTEGI IDENTIFIKAZIOA
TEEH ez-arriskutsuak, ehun-gaiak, altzariak eta asimilatuak	EGUNGO LANTEGIA	1	SARATSA
Tamaina handikoak eta TEEHak	**LANTEGI BERRIA**	1	BERRIOZAR

56. Taula. Berrerailpenerako prestaketarako lantegiak
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

12.3. BIRZIKLAPENA

HONDAKIN MOTA	LANTEGI MOTA	LANTEGI KOPURUA	LANTEGIEN IDENTIFIKAZIOA
BIO-HONDAKINAK	EGUNGO LANTEGIAK (Kudeaketa publikoa)	3	CTR CARCAR CTR CULEBRETE ARATZURI (inausteak)
	KONPOSTAJE LANTEGI BERRIAK (Kudeaketa publikoa)	**4**	**Zangoza aldea** **Doneztebe aldea** **Arbizu** **Iruñerria**
	KONPOSTAJEA (etxekoa eta/edo auzokoa)	--	
	ESKALA KUDEAKETA	--	
	BESTE LANTEGI BATZUK (Kudeaketa pribatua)	--	
ONTZIAK/MATERIALAK	PLANTAS EXISTENTES (Kudeaketa publikoa)	4	GONGORAKO ZENTROA
			CARCARKO ZENTROA
			AZKOIEN
			CULEBRETE ZENTROA
GAINERAKOAREN FRAKZIOA	EGUNGO LANTEGIAK (Kudeaketa publikoa)	2	CARCARKO ZENTROA

57. Taula. Birziklapen lantegiak
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

12.4. EZABAKETA

AZPIEGITURA MOTA	KOPURUA	IDENTIFIKAZIOA
EGUNGO ZABORTEGIAK, hondakin ez-arriskutsuak (Kudeaketa publikoa)	4	GONGORAKO ZENTROA CARCARKO ZENTROA CULEBRETE SAKANA (hondakin industrialak baizik ez)
EGUNGO ZABORTEGIAK, hondakin ez-arriskutsuak (Kudeaketa pribatua)	1	Dionisio Ruiz (hondakin industrialak baizik ez)

58. Taula. Ezabaketa taulak

12.5. LABURPEN MAPA

Mapa honetan azpiegituretarako aurreikusi den agertokia ageri da, honela multzokatuta:

- Bilketa: transferentzia lantegiak eta/edo karga nasak
- Birziklapena: gai organikoaren tratamendua, ontzien sailkapena eta/edo gainerako frakzioaren tratamendua
- Ezabaketa: zabortegiak



7.Irudia. Azpiegituren kokapen mapa
Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

13. GOBERNANTZA UDAL ESKUMENEKO HONDAKINETAN

Planak egungo gobernantza sistema hobetzea aurreikusi du. Horretarako, 2026ko otsaileko zirriborroak hainbat agertoki barnebildu zituen, hurbileko hainbat esperientziatan oinarrituta, eta parte-hartze eta kontsulta prozesuan izan ziren aztergai.

Gobernantza izan da arretarik gehien erakarri duen gai bat parte-hartze prozesuan Nafarroan barna egindako bileretan. Nabarmendu behar da, oro har, gai sorta batek adostasun maila handia izan duela, hala nola toki entitateen eskumenak errespetatzea, gobernantza bakarra eta koordinatua hobestea Nafarroan, gutxienez garraioari eta tratamenduari dagokienean (bilketak Mankomunitateen eskuetan egoten jarraituko luke), sistemaren izaera publikoa udal eskumeneko hondakinei dagokienean, eta zerga gaietan paradigma aldatu beharra.

Halaber, egungo eta etorkizuneko entitateek egin beharko duten zerbitzuaren norainokoa berrikusi beharra azpimarratu da.

13.1. EGUNGO EGOERA NAFARROAN

Etxeko hondakinen kudeaketa

Etxeko hondakinen kudeaketa era ezberdinean egiten da Nafarroan bilketarako eta tratamendurako.

Bilketa

Toki Entitateek egiten dute bilketa, eta horretarako, 15 Mankomunitate eratu dira, eta Udal bat ere arduratzen da. Bilketa bakoitzak bere kasa egiten du, salbu Baztan, Bortzirietan eta Malerrekan, elkarrekin egiten baitute.

Mankomunitatea	Azalera	Biztanleria	Biztanleria dentsitatea
	km2	Biztanle kopurua	
Bortziriak	184,40	8.567	46,46
Malerreka	223,90	5.374	24,00
Baztan	376,80	7.792	20,68
Araxes Garaia	46,30	869	18,77
Bidausi	446,40	2.519	5,64
Eska-Zaraitzu	848,80	3.068	3,61
Irati	701,30	5.458	7,78
Mendialdea	289,40	6.460	22,32

Mankomunitatea	Azalera	Biztanleria	Biztanleria dentsitatea
	km2	Biztanle kopurua	
Zangoza	636,80	9.644	15,14
Izarbeibar	400,90	11.079	27,64
Sakana	305,60	20.307	66,45
Mairaga	947,60	26.376	27,83
Erriberagoiena	434,80	31.701	72,91
Jurramendi	1.564,70	52.335	33,45
Erribera	910,30	87.337	95,94
Iruñerria	1.226,90	360.602	293,91
GUZTIRA	**9.544,90**	**639.488**	67,00

59. Taula. Azalera, biztanleria eta dentsitatea Mankomunitateen arabera
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Toki Entitateek mankomunitateak eratzen dituzte, eta toki entitate bakoitzak bere ordezkari kopuru ezberdina dauka, estatutuetan ezarritakoarekin bat.

Garraioa eta tratamendua

Garraioan eta tratamenduan, bi entitate handi daude eta era independentean dihardute:

- Iruñerriko Mankomunitatea. Nafarroako biztanleriaren % 55 inguru da
- Nafarroako Hondakin Partzuergoa. Gainerako 14 mankomunitateek eta Baztango Udalak garraio eta tratamendu arloko eskumenak Partzuergoan eskuordetu dituzte. Nafarroako biztanleriaren % 45 da (281.000 biztanle)

Azpiegiturak

Bilketa

- Transferentzia lantegi eta karga nasen sarearen bidez lortzen da hondakinen garraioaren optimizazioa hondakinak eramateko sortzen diren eremuetatik tratamendu zentroetaraino; lantegi eta nasa horien titularitatea Partzuergoarena da.

Tratamendua

- Iruñerriko Mankomunitateak bere azpiegiturak ditu, eta zuzenean kudeatzen ditu.

- Hondakin Partzuergoari dagokionez, azpiegituren titularitatea Mankomunitateena da, eta tratamendua egiten da Mankomunitateen eta Partzuergoaren artean izenpeturiko hitzarmenen bidez. Tratamendu instalazioetako lanak entitate titularrek egiten badituzte ere, Partzuergoak zuzendu eta gainbegiratzen ditu teknikoki, eta gastuak konpentsatzen dira kasu bakoitzean hitzartutakoaren arabera.

- Esan behar da tratamendu zentro guztiak ez daudela Partzuergoan sartuta. Zabortegiak ez daude Partzuergoaren kudeaketa esparruan sartuta, eta tratamendu ildoei dagokienez, bakarrik daude Partzuergoan Mankomunitateek eskatu dituztenak.

Mankomunitatea	Zentroa	Partzuergoan sarturiko instalazioak	Partzuergoan sartuta ez dauden instalazioak
Iruñerriko Mankomunitatea	Gongora	---	Ontziak sailkatzeko lantegia Zabortegia
Jurramendiko Mankomunitatea	Carcar	Konpostaje lantegia Frakzio lehorra sailkatzeko lantegia (ontzi arinak + gainerakoa)	Zabortegia
Erriberagoieneko Mankomunitatea	Azkoien	Ontziak sailkatzeko lantegia	---
Erriberako Mankomunitatea	Culebrete	Gainerakoaren frakzioarendako tratamendu Biologikoa Mekanikorako lantegia (TMB lantegia)	Ontziak sailkatzeko lantegia Zabortegia

60. Taula. Partzuergoan sartutako eta sartuta ez dauden instalazioak

- Tratamendu zentroak dituzten Mankomunitateek kudeaketa-entitateen eskuetan utzi dituzte zerbitzuaren berezko lanak, Erriberagoieneko Mankomunitateak izan ezik, taula honetan ageri den bezalaxe:

Mankomunitatea	Kudeaketa Entitatea
Iruñerriko Mankomunitatea	Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.
Jurramendiko Mankomunitatea	Servicios de Montejurra, S,.A.
Nafarroako Erriberagoieneko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea	Nafarroako Erriberagoieneko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea
Erriberako Mankomunitatea	Fomento de Construcciones y Contratas (FCC), S.A.

61. Taula. Kudeaketa-entitateak, Mankomunitateen arabera

Inbertsioak

Mankomunitateek berek egiten dituzte inbertsioak Partzuergoan sarturiko zentroetan, salbu eta Partzuergoak egin ditzala eskatzen dutenean. Badira kasuan kasuko Mankomunitatearen eta Partzuergoaren artean sinaturiko hitzarmenak, inbertsioak finantzatzeko, eta Partzuergoko Zuzendaritza Kontseiluak onesten ditu. Nolanahi ere, Partzuergoak lizitazio, jarraipen tekniko eta finantzaketa prozesuetan parte hartzen du.

Finantzaketa

Hona kudeaketa finantzatzeko bideak: tasak; Toki Ogasunen Funtsaren ekarpenak kasuan kasuko Toki Inbertsioen Planen bitartez, Nafarroako Gobernuak onetsiak; hondakinak birziklapenerako saltzea, eta Kudeaketa Sistema Integratuen ekarpenak.

Tasak

Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa-entitateak tasa bakarra du bilketa eta tratamendurako, ordenantzetan ezarritakoarekin bat.

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak Ordenantza Fiskal baten bidez arautua du hondakinak tratatzeko partzuergo-tasa, bakarra Partzuergoaren esparru osorako, eta entitateek berek beren abonatuei tasaren kobrantza-kudeaketa egiten dute. Izan ere, Partzuergoak hitzarmenak sinatu ditu partzuergo barruko entitateekin, eta hitzarmenekin bat, Partzuergoak entitate horien eskuetan utzi du aipatu tasa biltzeko kudeaketa. Partzuergoko tasa zehazte aldera, etxeko tasa hartu zen oinarri, eta hari faktore biderkatzaile bat aplikatzen zaio etxekoez bestelako tasak lortzeko. Etxeko tasa ezartzeko, kontuan hartzen dira bai tratamendu-zerbitzuaren gastu guztiak, dela berrezarpen funtsera bideratzen den dirutza, dela inbertsio plana.

Partzuergoko kide diren toki entitateek banakako bilketa tasa bat dute, bai eta Partzuergoak tratamendurako ezarritako tasa ere, taula honetan ageri den bezalaxe:

Mankomunitatea / Udala	Azalera (Km2)	Biztanleak	Bilketa tasa	Tratamendu tasa	Tasa guztira	Bilketa tasa	Tratamendu tasa	Tasa guztira
			€/etxe/urte (etxekoa)*			€/urte		
Iruñerriko M.	1.231,00	351.568	102,63			26.729.000,00		
Baztango Udala	376,81	7.792	65,00	46,32	111,32			
Araxes Garaia M.	46,22	865	45,68	46,32	92,00			
Bortziriak M.	178,01	8.575	77,50	46,32	123,82			
Mairaga M.	948,07	26.701	77,88	46,32	124,20			
Malerreka M.	224,31	5.405	66,52	46,32	112,84			
Mendialdea M.	289,60	6.501	78,00	46,32	124,32			
Jurramendi M.	1.580,47	52.617	33,42	46,32	79,74			
Bidausi M.	446,56	2.550	45,40	46,32	91,72	9.355.677,89	7.806.000,00	17.161.677,89
Erribera M.	910,49	87.254	53,80	46,32	100,12			
Eska-Zaraitzu M.	885,37	3.309	66,18	46,32	112,50			
Sakana M.	307,48	20.504	69,00	46,32	115,32			
Zangoza M.	596,31	10.147	65,66	46,32	111,98			
Izarbeibar M.	492,02	11.079	70,24	46,32	116,56			
Irati M.	707,57	5.520	112,50	46,32	158,82			
Erriberagoiena M. Alta	434,56	31.932	52,92	46,32	99,24			
Urdazubi	7,54	402	Bilketa tratamendua Frantzian					**43.890.677,89**
Zugarramurdi	5,65	227						

Mankomunitatea / Udala	Azalera (Km2)	Biztanleak	Bilketa tasa	Tratamendu tasa	Tasa guztira	Bilketa tasa	Tratamendu tasa	Tasa guztira
			€/etxe/urte (etxekoa)*			€/urte		
Hiri azalera	**9.668,06**	**632.948**	**Ordenantza guztiek tasa ezberdinak ezarriak dituzte subjektu ezberdinentzat. Taula honetan, adibidez, etxeko tasak bakarrik ageri dira (etxeei aplikatzen zaizkienak)*					

62. Taula. Bilketa eta tratamendu tasak
Iturria: Partzuergoa

Toki Inbertsioen Plana

Finantzaketa-iturri honek 21.700.000 €-ko diru-sarrerak eragin ditu 2009tik 2016ra; 2.712.500 €/urte, bana beste.

Material birziklagarrien salmenta

Finantzaketa-iturri honek de 7.558.224 €-ko diru-sarrerak eragin ditu: diru ori Kudeaketa Sistema Integratuetatik eta kudeatzaile pribatuetatik dator.

13.2. GOBERNANTZA PROPOSAMENA PLANEAN

Planak Gobernantza bakarraren alde egin du etxeko eta merkataritzako hondakinak Nafarroan kudeatzeko, parte-hartze prozesuan adostu den bezalaxe.

Prozesu horretan, gainera, Hondakinei buruzko Foru Lege bat egin beharra egiaztatu da

- Legeak etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa egokia bermatu behar du, Nafarroako Gobernuaren eta Toki Entitateen artean koordinaturik, garraio, tratamendu eta ezabaketan, nola materialen berreskurapenean.

- Legeak eskumenen eta arduren esparrua ezarri behar du, eta era berean, behar diren diru baliabideak eta agertoki posibleak ziurtatu.

Gobernantza

Gobernantzaren nondik norakoak Hondakinei buruzko Foru Legea egin bitartean zehaztuko dira, koordinazio egokia eta aplikatu beharreko fiskalitate egokia lortze aldera. Hartara, lan batzorde edo talde bat sortuko da, eta bertan ordezkaturik egonen dira udal eskumeneko hondakin kudeaketan diharduten entitate guztiak eta aipatu arloan eskuduna den langileria (teknikariak, ekonomialariak, legelariak…).

Honatx laburbildurik gobernantza berria arautuko duten printzipioak, parte-hartze bilera hartan adostu zen bezalaxe:

GOBERNANTZA BERRIAREN PRINTZIPIOAK
• Etxeko eta merkataritzako hondakinak **eredu publiko koordinatu** baten bidez kudeatuko dira. • Entitate Publiko bat sortuko da hondakinak kudeatzeko, Nafarroako Gobernuko eta Toki Entitate eskudunetako kideek osatua; egokitzat jotzen dituzten zerbitzuak beren borondatez utzi ahalko dituzte Entitatearen eskuetan. Horretarako, **Kudeaketa Entitate Publikoak** zerbitzu-gutun bat izanen du eskura, bere beharretarako egokia (bilketa, tratamendua,…). • Bultzatuko da Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek eskura izatea **behar adinako kalitatea duen zerbitzua**, eta tasak ezarriko dira, jende non bizi den alde batera utzita, **lurralde oreka** lortzearren. • **Hondakinei buruzko Foru Lege bat** garatuko da, besteak beste fiskalitatearen alderdiak jorratzeko, kontrolaren, ebaluazioaren eta kudeaketaren sostengarritasuna ziurtatze aldera. Fiskalitate berri horrek penalizazio ekonomikoa ezarriko du, hondakinak sortzearen arabera, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioari jarraiki.

63. Taula. Gobernantza printzipioak

Fiskalitatea

Hondakinei buruzko Foru Legean garatzen den fiskalitatean, honakoak barnebilduko dira:

- tasak, etxeko eta merkataritzako hondakinak biltzeko zerbitzua finantzatze aldera, bai eta transferentzia eta tratamendu kostuak ere, oinarri hartuta sortzen den kopurua eta kalitatea

- kanon bat zabortegian ezabatzeari lotua, planean bildutako neurriak finantzatzea ahalbidetuko duena

Hondakinei buruzko Foru Legean, bestalde, neurrien jarraipena, kontrola eta sustapenari dagozkion alderdiak ere ezarriko dira, hondakin industrialen nahiz eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa hobetzeko. Kanonaren bidez lortzen den dirua prebentziora eta berrerabilpenera bideratu liteke, eta era berean, produktuen eta azpiprodukturen bigarren mailako merkatua sustatzera eta birziklapena sustatzera..

14. PLANAREN JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA EGITEA

Hondakinak kudeatzeko plangintza egokia eginen bada, jarraipen eta kontrol handi eta zehatza behar da, helburuak noraino bete diren xehetasunez jakiteko, eta era berean, neurriak egokiak eta eraginkorrak izan ote diren jakiteko, behar izanez gero aldaketak egite aldera.

Planaren indarraldia 2017-2027 bitartekoa da. Jarraipen etengabea eginen da Planaren edukia betetzen ari ote den ikusteko; halaber, erabakiak hartuko dira plangintzaren berrikuspen-mugarrietan, helburuak ñabartzeko eta/edo aldatzeko aukera izanen da, eta aurrekontua eguneratzeko aukera ere izanen da, sostengarritasun ekonomikoa bermatze aldera. Planaren jarraipen egokia egite aldera eta helburuak bete daitezela lortze aldera, 6. Kapituluan ezarritako adierazleka erabiliko dira.

Nafarroako Gobernua arduratuko da kontrola eta jarraipena egiteaz, eta era berean, berariaz sortuko diren **Jarraipen Batzordea**, **koordinazio eta jarraipen taldea**, eta aipatu batzordean sor daitezkeen **lan mahaiak**, betiere Planaren jarraipen eta garapen egokirako lehenesten diren gaietan.

JARRAIPEN BATZORDEA

Plana onetsi eta 6 hileko epean, **Jarraipen Batz**ordea sortuko da, Plana ebaluatu eta eguneratzeko, hura nola garatu eta ezarri den ikusita, eta halaber, araudian sortzen diren nobedadeak kontuan hartuta. Nafarroako hondakin kudeaketaren egoeraren berri emanen zaio Batzordeari, eta aldi berean, Planetik eratortzen diren neuri garrantzitsu guztietan parte hartuko du.

Batzorde horren barnean, **Koordinazio eta Jarraipen Talde** bat sortuko da, kide gutxiagoz osatua eta operatiboa, Planaren helburu eta neurrien gainean lan egiteko, eta beharrezkoa den dokumentazioa lantzea ahalbidetuko duena Planaren funtzionamenduaz Batzordera helarazteko.

Era berean, Batzorde barnean ere **Lan Mahaiak** sortuko dira fluxu jakin batzuen jarraipena egiteko; bereziki, gobernantzan, prebentzioan eta ekonomia zirkularrean, hondakin organikoetan, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetan, eta nekazaritzako eta abeltzaintzakoetan: kide gutxiagoz osatuta egonen dira, operatiboagoak izan daitezen, eta Taldeari nahiz Batzordeari informazioaren berri emateko.

Erregelamendu bat onetsiko da Batzordearen, Taldearen eta Mahaien jarduna eta osaera arautzeko, eta eragile inplikatuak egituratuko ditu, Planaren gaien eta helburuen arabera.

Erregelamenduak, halaber, finkatuko du gutxienez ere zenbatean behin egin beharko dituen bilerak hala batzar orokorrak nola Batzordeak, Taldeak eta Mahaiek. Hala ere, urtean behin, hainbat alderdi berrikusi eta ebaluatuko dira, hondakin-fluxu bakoitzean ezarritako jarraipen-adierazleen bidez: urteko egoera, Planaren helburuetarantz diren aurrerapausoak, eta garatzen diren neurri eta ekintzen eraginkortasuna.

PLANAREN BERRIKUSPENA

Plana 2022an ebaluatu eta berrikustea planteatu da, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 14. eta 15. artikuluetan ezarritakoari jarraiki, hartu diren neurrien eta emaitzen eraginkortasuna aztertze aldera.

Plana bere osoan berrikusiko da, eta helburu berriak finkatu beharra jar dezake agerian, plan onetsian ezarritakoak baino munta handiagokoak.

Halaber, Plana berez luzatuko da, gehienez urtebeterako, baldin eta Plan berririk ez bada onesten egungoa bukatzea aurreikusia dagoen urterako.

15. AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA

Aurrekontu eta finantzaketaren kapituluak nagusiki udal eskumeneko hondakinak barnebildu ditu. Nafarroak hurbileko bilketa ereduak ditu hondakin horientzat gaur egun, Hondakin Planean aurreikusitako ereduekin bat.

Plan berriak, gainera, behar ekonomiko apalak aurreikusi ditu, behar diren inbertsio berrien tipologiarekiko; horrenbestez, behar diren neurri gehigarriak egingoen antzeko baliabideekin ezartzen ahalko dira, eta nolanahi ere, Planak berak fiskalitate berria ezartzea aurreikusi du Hondakinei buruzko Foru Legea onestearekin batera, lege horri esker neurriak era dinamikoagoan ezarriko baitira.

Diru-sarrerak eta finantzaketa

Hondakin Plana indarrean dagoen urteetako diru-sarrerak kalkulatze aldera, honakoak hartu dira oinarri: egungo diru-sarreren datuak, 2015. urteari dagokionak; halaber, Toki Azpiegituren Planetik datozen ekarpenak (azken 8 urtean, urtero bana beste 2.700.000 € inguru izan dira, eta azkenik, zabortegian hondakinak ezabatzeari ezarritako kanonaren bidez bildu beharreko zenbatekoaren gaineko kalkulua; kanon hori, ziurrenera, 2019tik aitzina ezarriko da, Hondakinei buruzko Foru Legea onetsi ondoren.

DIRU-LAGUNTZAK 2015 (€/urte)	**51.938.902**
Bilketa eta tratamendu tasak	43.890.678
Material birziklagarrien salmenta (kudeatzaileak, SIG…)	7.558.224
Gobernuaren beste ekarpen batzuk (sozialak, industria ...)	490.000

64. Taula. Diru-sarrerak
Iturria: Partzuergoa eta Iruñerriko Mankomunitatea

Material salmentari dagokionez, diru-sarrerak gero eta handiagoak izanen direla jo da, birziklapena hobetzearen ondorioz; horren batez besteko balioa diru-sarreren eta gastuen taulan sartu da. Toki Azpiegituren Planak, bestalde, 6.900.000 € emanen ditu 2017an eta 2018an, eta 3.000.000 €-ko zenbatekoa jo da urteko, 2019tik aitzina. Kanonari dagokionez, jo da zabortegian ezabatzeko kontuan hartu diren kopuruen arabera, urtean 5.776.020 €-ko diru-sarrera eraginen duela. Dirutza hori Plan honen estrategia-ildoak garatzeko erabili behar da.

Udal eskumeneko hondakinen kudeaketaren finantzaketa guztiaren % 18 sektore pribatutik etorriko da, 123.954.874 €; material saltzetik, zehazki, eta gainerako % 82 (574.071.636 €), berriz, sektore publikotik, Nafarroako Gobernutik eta toki entitateetatik.

Kudeaketa gastuak

Diru-sarreretarako bezala, Hondakin Planak indarrean dirauen urteetako, aintzat hartu dira kudeaketako datuak eta egungo neurri horizontalen kostuen datuak (2015. urteari dagozkionak), kudeaketa gastuak zehazteko:

KUDEAKETA GASTUAK 2015 (€/urte)	49.884.876
Hondakin bilketa	27.999.445
Hondakin garraioa eta tratamendua	20.628.352
Komunikazioa	767.079
Jarraipena eta kontrola	140.000
Enplegua	350.000

65. Ttaula. Kudeaketa gastuak
Iturria: Partzuergoa eta Iruñerriko Mankomunitatea

Gastuak inbertsioetan

Planaren garapenerako aintzat hartu diren inbertsioek 55.401.000 €-ko zenbatekoa jotzen dute 2017-2027 epealdi osorako, Iruñerrian ezarri beharreko aukerako azpiegitura berriak aintzat hartuta: transferentzia lantegia, zabortegia eta gainerakoaren frakzioa tratatzeko lantegia; betiere, guztiei ere kasuan kasuko alternatiba azterlana egin behar zaie.

Aurreikuspenen arabera, inbertsio batzuk 2019tik aitzina gauzatuko dira, hala nola zabortegikoak eta gainerakoaren frakzioari dagozkionak, behin isurpen kanona ezarritakoan.

Gastuak Planaren neurrientzat

Hondakin Planean eta haren garapenean aurreikusitako neurriak eta ekintzak ezartzeko gastuak kalkulatze aldera, gastuen eta diru-sarreren arteko aldea hartu da oinarri, bai eta inbertsiotarako dirutza ere; 2019tik aitzina, fluxu ekonomiko handiagoa utzi da, izurpen kanona ezarri ondoren. Aurreikusitako zenbatekoa, guztira, 93.891.874 €-koa izanen dela jo da Hondakin Plana indarrean dagoen urteetarako.

Hondakin Planaren aurrekontuaren urteko banaketari dagokionez, honako ehunekoak hartu dira kontuan, betiere Planaren helburuak betetzeko ezarri diren neurrien arabera kalkulatuak:

Hierarkia	2017-2018		2019tik aitzina		GUZTIRA	
	%	(€/urte)	%	(€/urte)	€	%
Prebentzio programa	**12**	**527.050**	**14**	**1.286.699**	**12.634.395**	**14**
Kudeaketa plana	**73**	**3.206.219**	**63**	**5.991.601**	**60.336.851**	**63**
Gaikako bilketa	33	1.449.387	29	2.708.532	27.275.563	29
Berrerabilpenerako prest.	5	219.604	4	410.384	4.132.661	4
Birziklapena-balorizaioa	25	1.098.020	22	2.051.918	20.663.305	22
Ezabaketa	10	439.208	9	820.767	8.265.322	9
Neurri horizontalak	**15**	**658.812**	**23**	**2.178.112**	**20.920.629**	**23**
Komunikazioa	10	439.208	10	945.641	9.389.187	10
Jarraipena eta kontrola	2	87.842	6	594.275	5.524.156	6
Enplegua eta I+G+b	2,5	109.802	4	363.019	3.486.772	4
Berdintasuna	0,5	21.960	3	275.177	2.520.514	3
GUZTIRA	**100**	**4.392.081**	**100**	**9.456.413**	**93.891.874**	**100**

66. Taula. Planaren aurrekontuaren urteko banaketa. Iturria: geuk egina (GAN-NIK)

GASTUAK (€)	2017 / 2018	2019tik AITZINA	GUZTIRA	DIRU-SARRERAK (€)	2017 / 2018	2019tik AITZINA	GUZTIRA	FINANTZAKETA organismoa	FINANTZAKETA Publikoa/ pribatua	FINANTZAKETA GUZTIRA €	FINANTZAKETA GUZTIRA %
KONTZEPTUA				**KONTZEPTUA**							
KUDEAKETA	**49.884.876**	**49.884.876**	**548.733.636**								
Recogida de residuos	27.999.445	27.999.445	307.993.894	**Material salmenta (kudeatzaileak, SIG, …)**	**8.485.824**	**11.887.025**	**123.954.874**	Kudeatzaileak, Erantzukizun hedatuko sistemak	Pribatua	123.954.874	18
Tratamiento de residuos	20.628.352	20.628.352	226.911.873								
Comunicación	767.079	767.079	8.437.869								
Seguimiento y Control	140.000	140.000	1.540.000						**Pribatua guztira**		**18**
Empleo	350.000	350.000	3.850.000								
PLANAREN NEURRIAK	**4.392.081**	**9.456.413**	**93.891.874**								
Prebentzio programa	527.050	1.286.699	12.634.395	**Bilketa eta tratamendu tasa**	**43.890.678**	**43.890.678**	**482.797.457**	Toki Entitateak	Publikoa	482.797.457	69
Kudeaketa plana	3.206.219	5.991.601	60.336.851								
Gaikako bilketa	1.449.387	2.708.532	27.275.563								
Berrerabilpenerako prestaketa	219.604	410.384	4.132.661	**Gobernuaren beste ekarpen batzuk (sozialak, industria..)**	**490.000**	**490.000**	**5.390.000**	Nafarroako Gobernua	Publikoa	5.390.000	1
Birziklapena-balorizazioa	1.098.020	2.051.918	20.663.305								
Ezabaketa	439.208	820.767	8.265.322								
Neurri horizontalak	658.812	2.178.112	20.920.629								
Komunikazioa	439.208	945.641	9.389.187								
Jarraipena eta kontrola	87.842	594.275	5.524.156	**Isurpen kanona**	**0**	**5.776.020**	**51.984.180**	Nafarroako Gobernua	Publikoa	51.984.180	7
Enplegua eta I+G+b	109.802	363.019	3.486.772								
Berdintasuna	21.960	275.177	2.520.514								
INBERTSIOAK	**2.039.545**	**5.702.434**	**55.401.000**	**Toki Azpiegi. Plana (PIL)**	**3.450.000**	**3.000.000**	**33.900.000**	Nafarroako Gobernua	Publikoa	33.900.000	5
Garbiguneak	318.182	318.182	3.500.000								
Transferentzia lantegiak egokitu eta hobetzea *	113.636	113.636	1.250.000								
Zabortegietako lanak *	0	1.551.778	13.966.000								
Gainerakoaren frakzioaren tratamendua handitzea *	0	2.111.111	19.000.000						**Total Publikoa**		**82**
Hondakin solidoen frakzio organikoaren tratamendua handitzea	354.545	354.545	3.900.000								
Ontzien tratamendua hobetzea	53.182	53.182	585.000								
Beste inbertsio batzuk	1.200.000	1.200.000	13.200.000								
GUZTIRA	**56.316.502**	**65.043.723**	**698.026.510**	**GUZTIRA**	**56.316.502**	**65.043.723**	**698.026.510**		**GUZTIRA**	**698.026.510**	**100**

*Iruñerrian ezarri beharreko aukerako azpiegitura berriak sartu dira: transferentzia lantegia, zabortegia eta gainerakoaren frakzioa tratatzeko lantegia; betiere, guztiei ere kasuan kasuko alternatiba azterlana egin behar zaie.

67. Taula. Planaren aurrekontua

Iturria: Partzuergoa, Iruñerriko Mankomunitatea eta GAN-NIK